

ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko Irailaren 8a > Astelehenetako VI. urtea > 201. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Eraikuntza izan da gure lokomotora ekonomikoa eta hura ordezkatzea ez da erraza izango"

Antxon Perez de Calleja
Ekonomilaria > 6



G2a

Arantzazuko Santutegia Hotelak zabalik > 23

LEINTZ GATZAGA
Mendi etxeen kudeaketa lehiaketara atertu du Udalak > 14

KULTURA
Atzoko Kaleko jaiak ospatzen dihardute Oñatin > 24

KIROLAK
Jose Jaber Barkero lehen mailan berriz, Numanciarekin > 21

ERLIJIOA > MUSULMANAK DEBAGOIENEAN

Ramadan sasoian, baraualdian dira ibarreko musulmanak

DEBAGOIENA Etorkinen kopurua dezente handitu da eta gero eta ohikoagoa bilakatu da musulmanen presentzia gurean

HILABETE Irailaren 1etik urriaren 1era arte, erlijio islAMDARRAK agindutako zintzo jarraitza da euren helburua

MESKITARIK EZ Debagoienean ez dago meskitarik eta euren kulturari eusteko lokal baten premia ikusten dute > 03

DEBAGOIENA > HEZKUNTZA

Ikasleak eskolara itzuliko dira gaurtik

Debagoieneko ikastetxe gehienetan asteon hasiko dute ikasturte berria > 05

Jende gehiegiz ez, baina giro ona Leintz Gatzagako jaietan

Gatzagarrak Andramaixetan murgilduta daude egunotan. Bariku iluntzean abiarazi zituzten jaiak eta, hasiera motel samarra izan bazeen ere, giroa berotzen joan zen zapatu gauaz geroztik. Dantzaren aldeko apustua egin du aurten jai batzordeak, eta egitarauan jasotako askotariko taldeek erantzun bikaina izan dute: sabel dantzen emanaldiak, esaterako, ez-ohiko argazkia utzi du. Gaurkoa izango da jaietako azken eguna; bertan izango dira Otxandiokoak. > 09



HERRI AFARIA Sabel dantzak egiten zituzten emakumeei begira, afal oste gozoa izan zuten gatzagarrek zapatu gauean.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrikzeta > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

OÑATI > ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

Uriarte gotzainak meza emango du bihar Arantzazun

Gipuzkoako zaindari Arantzazuko Ama Birjinaren eguna ospatuko dute bihar Oñatin. Ohikoa den moduan, erromes mordoa espero dute biharko Arantzazun. Juan Mari Uriarte gotzainak meza nagusia emango du Basilikan eguerdian, 12:00etan. Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Diputatu-

zioko eta Oñatiko Udaleko ordezkarien hartuko dute parte biharko ospakizunetan. Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria bertan izatea espero da. Goizean goizetik aterako dira erromesak. 08:00etan Zapatari bat egingo dute. Oñatitik Arantzazura igotzeko ordu oro autobusak izango dira. > 04

UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK

arrotz lanak orokorrean • horma-armairuak • altzariak • leihoak • atea



altzari denda
ikerlek zeharbidea • bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta tailerra
san juan 1A • bergara
tel.: 943 76 54 91 faxa: 943 76 08 04

Goienkaria

ASTELEHENeko
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Iraileko zozketa

PARTE HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

Aquarium-erako sarrerak



Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

CD-IRRATIA_STEREO



Bidali AG CD 5533 zkra

AGko HARPIDEDUNENTZAT SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez! Tel.: 943 08 10 50

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**ARBELAITZ JATETXEAN
BI PERTSONANDAKO AFARIA**

Zozketan sartuko dira: 08-07-22tik 08-09-25 ra jasotakoak

Anbelaitz.
ARBELAITZ • DONOSTIA

ERLIJIOA > MUSULMANAK DEBAGOIENEAN

Salam malecum, Ramadan sasoia da musulmanendako

HILABETA Irailaren 1etik ilargiak ziklo osoa egin arte, urriaren 1era arte, erlijio islamdarra agindutakoari zintzo jarraitza da musulmanen xedea

DEBAGOIENA Etorkinen kopurua dezente handitu da azken urteotan eta gero eta ohikoagoa bilakatu da musulmanen presentzia ibarreko herriean

RAMADANA Meditazioa apurtzen duen ekintza ororen (jatea zein harreman sexualak izatea tartean) uztea da musulmanen baraualdia

MEDITAZIOA Ramadanak irauten duen bitartean pertsona hobeak izaten saiatzen dira musulmanak, besteak beste, meditazioari garrantzi handia emanez

E. MENDIBIL/I. BARANDIARAN > BERGARA
Orain dela urte gutxi batzuk gutxi ziren gure artean Ramadana ospatzen zuten musulmanak. Azken urteotan, ordea, etorkinen kopurua dezente handitu da eta gero eta ohikoagoa bilakatu da musulmanen presentzia ibarreko herriean. Ramadhan garaian dira orain mundu osoko musulmanak, Debagoienekoak tartean. Hain zuzen ere, joan den astelenehetik hasita ilargiak ziklo osoa bete arte, urriaren 1era arte, Islamak agindutakoari zintzo jarraitza da euren xedea.

Ramadan arabiar egutegia-ren (ilargiaren araberakoa) bederatzigarren hilabetea da eta nazioartean da ezaguna musulmanek baraualdia (*sawm arabieraz*) egiten dutelako egunero, eguzkia ateratzen denetik sartzen den arte. Meditazioa apurtzen duen ekintza ororen (jatea zein harreman sexualak izatea tartean) uztea da musulmanen baraualdia. Musulman heldu guztiek, gizonezkoek zein emakumeek zintzo betetzen dute. Hilekoarekin diren emakumeek, haudun direnek, gaztxoek edo ahul samar diren zaharrek ez daukate baraualdia egin beharrak. Edozein modutan, semelalabe, txikitik, Ramadanan garrantziaz ohartzea da guraso musulmanen zereginetako bat.

LOKALA BERGARAN

Bergaran pakistandarren komunitate handia dago eta Ramadhan sasoian Zubiaurren alokatu duten lokalean elkartzen dira otoitz egiteko. Egunero 50 lagun inguru elkartzen dira bertan, 22:00ak aldera, ordu erdiz otoitz egiteko. Oñatin bizi den arren, Mohammad Afzal Chohan Bergara eta etortzen da lagunekin otoitz egitera. Meskita baten faltan, Bergarako lokala primeran datorkie Ramadhan sasoirako. Orain arte, gehienek etxean jan eta erre-zatu egiten zuten. Chohanek zera diosku: "Gure komunitateko kide gehienok Islameko kultura elkar-te bat eratu nahi dugu, gure hiz-kuntza, urdu-a, eta kultura ika-si ahal izateko. Horretan gabil-tza, baina oraindik ez daukagu baliabide nahikorik. Harrema-nak sendotzeko ondo lego, izan ere pakistandar asko bizi gara



OTOITZ EGITEN Pakistandar talde bat errezzaten egubakoitz gauean, Bergaran daukaten lokalean.

JOSETXO ARANTZBAL

ibarrean. Ramadhan sasoirako Bergarako lokala alokatu dugu eta oraindik jendeak ezagutzen ez duen arren, Arrasatetik eta beste herrietatik ere musulmanak etortzen dira. Gure tradizioei eusteko modua da hau".

HAUSNARKETA

Egunean zehar baraualdia egiten badute ere, eguzkia sartzen denetik eguzkia irten bitartean nahi beste jan dezakete Ramadana jarraitzen dutenek. Edozein modutan, ez dira horretara mugatzen, egunez ez jateari alegia.

Egun horietan pertsona hobeak izaten saiatzen dira musulmanak, besteak beste, meditazioari garrantzi handia emanez. Era berean, urte osoan zehar errezzaten badute ere, Ramadhan sasoian

berebiziko indarra hartzen du otoitz egiteak. Chohanen hitzean, "jendea errespetuz hartzetan, behar duzu, eta pertsona hobeak izaten saiatu behar zara. Norberak jaten ez duenean helburua zera da: besteak, sufritzen dute-nak, zelan dauden ohartzea, haien gaineko hausnarketa egitea".

Meskita baten edo kultur elkarteko baten falta sumatzen dute

Zaila da jakitea Debagoienean zenbat musulman dagoen, baina urtetik urtera goraka doan kopurua dela argi dago. Maroko, Senegal, Algeria, Sahara edo Pakistandik jende asko etorri da gurera. Bergaran 250 pakistandar bizi dira. Debagoienean ez dago meskitarik eta gertukoena Eibar, Ermua, Azkoitia edo Zumarraga-koira dira. Hara jotzen dute ibarreko musulmanek askotan. Esan bezala, euren asmoa da Debagoienean lokal propio bat izatea. Dena dela, bizitza aurrera

ateratzearekin nahiko lan daukate askok. Kontuak kontu, elkarrekin otoitz egiteko eta bestelako kultur ekitaldieta zuzendutako lokala eskuratzeko lanean hasi dira. Oraingo, Bergarako Zubietako kalean, 21. zenbakian, lokala hartzute alokairuan. Bere jaioterritik urrun norbait hiltzen denerako, haren aldeko meza egiteko besterik ez bada ere. Izan ere, Ipintzako futbol zelaian egin izan dute hiletak bat edo beste. Duintasunez, euren kulturari eutsi ahal izatea da helburua.

DIZIPLINA

Lana dela eta, batzutan ez da erreza Ramadana jarraitu ahal izatea. Diziplina beharrezko da. Eguzkia irten baino lehenago gosari gogor bat egiten dute, eguneko jarduerai ekin ahal izateko. Gero, egun osoko baraualdia dator, iluntzean amaituko dena. Musulmanen hilabeterik garrantzitsuenean gaude. *Salam malecum*.

OSPAKIZUNA > ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

Juan Mari Uriarte gotzainak meza nagusia emango du bihar Arantzazun

Oñatitik Arantzazura doazen autobusak ordu erdiro aterako dira: 08:30etik aurrera Oñatitik eta 09:00etatik aurrera Arantzazutik

MIREIA BIKUÑA > ARANTZAZU
Gipuzkoako zaindari Arantzazuko Ama Birjinaren eguna ospatuko dute bihar Arantzazuko santutegian. Goizetik erromes joango dira oñatiarrak. Hain zuzen ere, 07:00etan irtengo dira herritik, eta 08:00etan, Zapatan bat egingo dute gainerako erromesekin. Handik otoitzean, isilik eta kantuan egingo dute Arantzazura heltzeako falta diren metroak, bozgorailua duen auto batek lagunduta. "Biharko egunez oñatiarrak izaten dira gehienak, askorendako lan eguna izaten da-eta. Dena den, erromes mordoa espero dugu, oñatiarrak bizi guztian etorri dira-eta", esan digu Iñaki Beristainek.



Zapatua zenez, iaz jende asko elkartu zen Arantzazun. Eguraldi ona egin zuen gainera.

GOIENKARIA

Oñatiko erromesak Arantzazura iristerako, 12:00etan, meza nagusia hasiko da. Hain justu ere, Juan Mari Uriarte gotzai-

nak emango du meza. Bertan parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Oñatiko Udaleko

ordezkariak. "Gonbidapenak bidali dizkiegu. Pentsatzen dugu Ibarretxe lehendakaria etorriko dela", diote.

AUTOBUS GEHIAGO

Bestalde, Arantzazura oinez joan gura ez dutenendako autobus zerbitzua indartzea erabaki du Udalak. Hala, autobusak ordu erdian behin irtengo dira: 08:30etatik 19:30era Oñatitik Arantzazura; eta 09:00etatik 20:00etara Arantzazutik Oñatira. Autobus bidaia bakoitzak 0,50 euro balio du.

Bestalde, Oñatiko Etxeratek kale agerraldia deitu du 11:45era-ko santutegiaren aurrean; besteak beste, presoen eskubideak aldarrikatuko dituzte.

ARRASATEARRAK, DOMEKAN

Arrasatearrak domekan, hilaren 14an egingo dute erromesaldia Arantzazura. Hain justu ere, 06:30ean irtengo dira Kontzezino kaletik, eta 11:00ak aldera helduko dira.

Bestalde, erromesaldian parte hartu baina Gesaltzaraino autobusez joan gura dutenek, autobus txartela erreserbatu behar dute Ecuador Bidaia agentzian. Txartelak 10 eurotan salduko dituzte, eta egubakoitzean jaso beharko dituzte. Autobusa 09:00etan irtengo da Garibaitik.

EKONOMIA > LEHEN SEIHILEKO DATUAK

Ekainera arte iaz baino %98 gutxiago irabazi du Fagorrek

Mondragon taldeko kideak 164.000 euro irabazi ditu ekainerarte; aldiz, iaz, 7,9 miloi euro

M.B. > ARRASATE
Fagor Etxetresna Elektrikoak Balio Merkatuaren Spainiako Batzordeari (CNMV) emandako datuen arabera, urteko lehen sei hilabetan 164.000 euro irabazi ditu. 2007ko datuekin alderatuta %98 gutxiago irabazi du. Datuok urtarriletik ekainera artekoak dira. Fagorren iritzia, ekaineko garraiolarien grebak eta egungo egoera ekonomikoak dira sal-

menta jaitsieraren arrazoi nagusiak. Fagorreko arduradunek diote, salmentak orokorrean asko jaitsi direla Spainia osoan. Jaitsiera izan arren, urte bukaerako datuak hobetzea espero dute, eta irabazien jaitsiera leundai egingo dela iragarri dute.

NEGOZIO BOLUMENA

2007ko datuek erakusten dute Fagor Etxetresna Elektrikoak 7,9 milioi euro irabazi zituela urtarriletik ekainera arte. Hortaz, %98 gutxiago irabazi dute 2007ko uztailera arte.

Balio Merkatuaren Spainiako Batzordeari igorritako datuek diote Fagor Etxetresna Elektrikoak 841,8 milioi euroko negozio bolumena izan duela lehen seihilekoan. Hortaz, urtebetean %5,5 jaitsi da. Salmenta kopuruak behera egin du linea gehienetan: alde batetik, etxetresna handiak biltzen dituen linea zuriak 745,4



Irudian, Fagor etxetresna elektrikoko lantegia.

GOIENKARIA

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA VIII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabalduta eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltzate. G kalea-31013 IRUNEA.

Iraialaren 30a arte.

Tel: 948 326535
soltzate@pamiela.org
Arauk: www.pamiela.org



2008

DATUA

841,8

MILIOI EURO

Hori da Fagor Etxetresna Elektrikoak izan duen negozio bolumena ekainera arte. Hortaz, urtebetean %5,5 jaitsi da Fagorren salmenta kopurua. Urtarriletik ekainera 164.000 euro irabazi dituzte.

HEZKUNTZA > ESKOLARA BUELTA

Gaurtik eguztenera hasiko dute kurtso berria ikastetxe gehienek

Urduritasun apur batekin bada ere, neska-mutiko gehienak ikaskideekin elkarteko gogoz daude

Irakasleak hasita daude lanean: ikasgelak txukuntzen eta bileretan eman dituzte egunok

GOIATZ ARANA > BERGARA
Opporraldi luzea izan dute eskola-umeek, baina horiei ere bukatu zaie pagotxa. Gaur ez bada, bihar, etzi edo datozen egunetan hasiko dute ikasturte berria Debagoieneko ikastetxeetan. Uda nola joan den galderuta, primean pasa dutela kontatu digute, eta ez direla aspertu. Lanerako gogo gehiegirik ez dute, baina bai ikasturtea hasi eta lagunekin egoteko, eta horrek apur bat urduritu ere egiten ditu. Lehen egunetako kontuak dira horiek



Gurasoek lagunduta joango dira ume asko eskolara, lehen egunean. GOIENKARIA

guztiak, ordea. Behin horiek igarota, eskolako jarduna egunero-ko bilakatuko da.

Irakasleek, euren aldetik, ekin diote lanari. Irailaren lehenetik, ikasgelak txukundu eta gurasoekin bilerak egin dituzte, guztia prest izateko.

BERRITASUNAK MU-N

Mondragon Unibertsitatean gaur hasiko dituzte eskolak, nobedade eta guzti: aurtengo ikasturtean abiaraziko dituzte Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokitutako lehen sei titulazioak. Ingeniaritza alorrekoak dira bost.

Ikasturte hasiera

ARRASATE

Arizmendi: irailak 10
Arrasate Herri Eskola: irailak 10
Lanbide Hastapena: irailak 15
MU: irailak 8

ARETXABAleta

Arizmendi: irailak 10
Kurtzebarri: irailak 10

ESKORIATZA

Arizmendi: irailak 10
Luis Ezeiza Herri Eskola: irailak 12

OÑATI

Elkar-Hezi ikastetxea: irailak 10
Txantxiku: irailak 10
Herri Eskola (Zuazola-Larraña): irailak 10

BERGARA

San Martin Herri Eskola: irailak 8 (2 urteko haurrak, irailak 11)
Aranzadi: irailak 9 (DBH eta Batxilergoa, irailak 10)
Mariaren Lagundia: irailak 8
Ipintza Institutua: irailak 8
Miguel Altuna Institutua: irailak 9

ANTZUOLA

Herri Eskola: irailak 8

ELGETA

Herri Eskola: irailak 9

LEINTZ GATZAGA

Luis Ezeiza Herri Eskola: irailak 12

ARAMAIO

San Martin Eskola: irailak 8

HIZKUNTZA

Euskararen aldeko hitzarmena Bergaran

Irigoyen Patronatuak eta Euskaltzaindiak izenpetu dute

GOIATZ ARANA > BERGARA
Irigoyen Patronatuak herriko kultura elkartetako kideek sortu zuten, Jose Maria Irigoyen euskaltzaleak bere testamentuan jasotako asmoa aurrera eramateko: zembait ondasun utzi zituen Bergaran euskara eta euskal kultura sustatzeko. Ordutik hona, hainbat kultura-ekintza bultzatu eta diruz lagundi du batzordeak, baina urteetan ez da berriku eta egun geratzen diren bi batzordekideek ezin dituzte helburuak bete. Hori horrela, batzordea desegin eta diru-funtsaren titulartasuna Euskaltzaindiaren esku utzi dute, Jose Maria Irigoyen zenaren xedeak betetzen jarraitu daitezen.

FUNTZIONAMENDUA

Euskaltzaindia urtero bilduko da herriko euskalgintzaren alorrean eragin asmoz aurrera eraman gura diren ekintzak aztertzeko eta, babestea merezi dutela iritziz gero, diruz laguntzeko.

> ATXILOKETAK
Ertzaintzak bi gazte atxilotu zituen zapatuan Oñatin

Gaztetxearen aldeko San Martingo akanpadaren barruan jazo zen gertaera zapatu arratsaldean. Gaztetxearen aldekoek diotenez, ertzainek San Martingo ermita ondoko etxe-ko ateak bota eta barruan zeuden bi gazteak atxilotu zituzten. Ertzaintzaren arabera, ermitan bertan kateatu ziren bi gazte dira atxilotuak eta aske daude. Ondasun higienizinen usurpatzea egotzen die.



J. ARANTZABAL

Euskarak batzen gaitu



Astelehenetik barikura eguneko menua

Asteburuetan plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

Azken hilabeteotan krisia hitza bolo-bolo dabil. Han eta hemen entzuten dira adituen iritziak eta herritarrok hasi dira dagoeneko ondorioak sumatzen. Lantegiek emandako datuen arabera, egoera ekonomikoa ez da batere ona eta etorkizunerako aurreikuspenak ere ezkorra dira. Antxon Perez de Calleja ekonomilariekin izan gara, haren ikuspuntua jakiteko.

Antxon Perez de Calleja > Ekonomilaria

"Eraikuntza izan da gure lokomotora eta hura ordezkatzea ez da erraza izango"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Antxon Perez de Calleja (Zarautz, 1943) ekonomilaria kostaldeko gipuzkoarra dela dio, baina dagoeneko 30 urte darama Aretxabaletan bizitzen. Hain zuzen ere, Gellao auzoan bizi da, Urieta baserrian. Enpresen aholkularia da eta aldian behin egoera ekonomikoaren gaineko azterketak egiten ditu. Bera-rekin izan gara.

Esaten dutena bezain larria da bizi dugun krisia?

Lehenbiziko krisi gogorra 1974koa izan zen eta 1993koa ere ez zen makala izan. Haiekin batera, bizi dugun hau azken 40 urteotako krisirik larriena litzateke. Indar askoko krisia izateaz gain, azkar zabaldu da eta badi-rudi luzea izango dela. 2009 eta 2010 urteetarako aurreikuspenak txarrak dira eta horren leku-ko datu bat: 2010erako %16ko langabezia aurreikusten da Spainian. Horrek esan nahi du langabetuen kopurua lau milioi ingurura iritsiko dela.

Zeintzuk izan dira faktore era-gileak?

Eraikuntza-enpresen burbuila dago guztienetan azpian. Sekto-re guztiak izan dezakete oparoaldiak, hazkunde tasekin eta salmenta positiboekin. Baina hori luze mantenduko dela uste denean, espekulaziozko hazkundea dator. Spainiaren kasuan burbuila horrek bazituen oinarri sendo batzuk, bikote asko ari zirelako etxe bila, atzerritarrek etxea erosi nahi zutelako, bigarren etxebizitzako merkatua indarrean zegoelako... Baina arazoa noiz dator? Prezioak goraka hasten direnean eta esplotatzeko izugarrizko negozioa dagoela uste duenean jendeak. Espekulazioak dakinaren egoera ez normala. Esate baterako, Spainian, urtean, 800.000 etxe eraikitza iritsi izan da, Britainia Handian, Alemania eta Frantziaren, hiruretan batera, egin izan direnak. Opa-roaldia uste baino gehiago lutzatu zen hemen diru merkeko politika indarrean zegoelako; interes tipoak inflazioa baino baxuago egon izan dira eta ondorioz, jendea lasai zorpetu izan da.


Eraikuntza enpresek segituan piztu zuten alarma.

Aurten, 200.000 etxe eraikiko direla aurreikusten da, aurreko urteotan eraiki izan denaren laurdena, hain zuzen. Urte amainerako milioi bat etxe saltzeke egon-

herritarrok hasi dira dagoeneko ondorioak sumatzen. Lantegiek emandako datuen arabera,

ra, egoera ekonomikoa ez da batere ona eta etorkizunerako aurreikuspenak ere ezkorra

dira. Antxon Perez de Calleja ekonomilariekin izan gara, haren ikuspuntua jakiteko.



Antxon Perez de Calleja Aretxabaletan bizi da, Urieta baserrian, Untzillara bidean. Argazkian, zapatuan ateratako irudi bat.

JOSETXO ARANTZABAL

go direla aurreikusten da eta hori eraikuntza-enpresentzat ez ezik, bankuentzat arazo larria da. Bankaren kredituen %60 etxebizitzetako zuzendutakoa da eta lehen ezagutzen ez genuen egoera batera iritsi gara: likidezia izateko zaitasunak izatea bankak, alegia. Europako Banku Zentralak emandako kredituengatik izango ez balitz, bankuek eta aurrezki kutxek benetan txarto pasatuko zuten.

Egoera honetan, zeintzuk dira kaltetuenak?

Hazkunde fasera iritsi direnak azkenak: gazteak, lana galdu duten pertsona helduak, etorkinak... Ondorioek jasan dituzten lehenak eraikuntzako langileak izan dira. Egiten ez den etxe bakoitzeko bi enplegu galten direla aurreikusten da. Aterra kontuak. Eusko Jaurlaritzak behin eta berriro esan du krisiak neurri txikian eragingo digula, baina zuenki zein zeharka eraikuntzarako lan egiten duten lan-

KRISIAREN ONDORIOAK

"2010erako %16ko langabezia aurreikusten da Spainian: 4 milioi langabetu"

KALTETUENAK

"Zuzenki zein zeharka eraikuntzarako lan egiten duten lantegiek gaizki pasako dute"

DEBAGOIENA

"Europako batez bestekoaren gainetik gabiltza eta horri eusteko berrikuntza guneeek zeregin garrantzitsua daukate"

tegiek gaizki pasako dute. Hor daude Fagorrek jakitera emandako datuak, eta beste horrenbeste gertatuko da antzeko enpresekin. Esate baterako, Errenteria-ko Niessen enpresak entxufe elektrikoak egiten ditu. Etxe batek 20-30 entxufe behar izaten ditu. Eraikuntza bertan behera geratzen denean, inguruko asko dira kaltetuak. Beharbada, makin-a erremintako sektorearen egoera ez da hain larria, produkzio-aren gehiengo nabarmena esportatu egiten dutelako.

Zer egin egoera honen aurrean? Zela gainditzen da holako egoera bat?

Oraingoan jendea berehala ohartu da egoeraz eta horrek kontsumoaren erabateko moz-keta ekarri du. Euskal Herrian hain garrantzitsua den automo-bilaren sektoreari eragin dio horrek. Petrolioaren krisia (nahiz eta leuntzen hasi den) gehitzen badiogu, panorama bel-tza dugu aurrean. Errekuper-a-

zioa ez da erraza izango, lokomo-tora nagusia gabe geratu garela-ko: eraikuntza. Ordezkatzea ez da erraza izango. Irteera tradiciona-la esportazioa izan da, baina orain ez da hain erraza. Lehen, pezeta-rekin, debaluazioaren aukera zegoen baina euroarekin ez dago horrelakorik. Gainera, gure mer-kanutu erreferenteak, EEBB eta Europa, krisian dira baita... Krisia izaten denean, prezioek behe-ra egin beharko lukete. Eskaera errekuperatzeko modua izan dai-teke.

Debagoiena gertu dago krisia-ri aurre egiteko?

Ia-ia egoera idilikoa bizi izan dugu orain arte. *Per capita* erren-ta 30.000 eurokoa izatera iristen denean, egoerari eusteko berri-kuntza teknologikoa eta enpre-sa bilakaera ezinbestekoak dira. Europako batez bestekoaren gainetik gabiltza eta horri manten-tzeko unibertsitateak eta berri-kuntza gunek zeregin garrantzi-tsua daukate etorkizunera begira.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Udal Euskaltegian matrikula egiteko

Zabalik dago Bergarako Udal Euskaltegian matrikulatzeko epea. Maila eta ordutegi guztia eskauntzen dituzte. 08:30etik 18:30era daude bulegoan. Argibideak: 943 76 44 53 / berg.eusk@udal.gipuzkoa.net.

ANTZUOLA, BERGARA, OÑATI

> Helduen eskolan matrikula egiteko aukera

Antzuolako, Bergarako eta Oñatiko helduen eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago irailaren 12a arte. Argibide gehiagorako, deitu honako telefonotara: 943 78 35 77 (Oñati), 943 76 44 52 (Bergara). Antzuolakoek Bergarara edo udaletxera dei dezakete.

OÑATI

> 1980an jaiotakoekin kinto ospakizuna

1980an jaiotako oñatiarrek ospakizuna egingo dute irailaren 20an, zapatua, Arantzazuko Sindika hotelean. 12:30ean batuko dira Aloña Mendi tabernan. Izena emateko, sartu 50 euro Euskadiko Kutxako kontu honetan: 3035 0005 32 0050044395.

BERGARA

> Musika Eskolaren ikasturte hasiera

Bergarako Musika Eskolak irailaren 8an hasiko du ikasturtea. Izena emateko epea

zabalik dago, hilaren 12a arte, honako ikasgaietan: aurre-hizkuntza musikala (2002 eta 2003an jaiotakoendako), hizkuntza musikala (7 urtetik gorakoendako) eta helduen hizkuntza musikala.

ELGETA

> Erretiratuek Erriberri-rrira irteera egingo dute

Erretiratuek Erriberri-rrira (Olite) irteera egingo dute hilaren 17an. Upategi bat eta Erriberriko gaztelua bisitatuko dituzte. Izena emateko, jo Pedro Mari Ubarrenaga.

ARRASATE

> Tai-txi eskolak hasiko dira bihar, martitzena

Tai-txi ikastaroa emango du Rafael De la Mazak. Bihar, martitzena, hasiko da, eta martitzena eta eguenetan batuko dira, San Viator Handiko egoitzan, 20:15-21:30. Izenematea: 679 64 24 91.

BERGARA

> Legazpira mendi irteera egingo dute San Joxepoek, eta gaur eman daiteke izena

San Joxepeko erretiratuek Legazpiko hainbat mendi –Aktiria, Atagoiti, Biurrain, Korta, Irazabal eta Mirandaola– ezagutzeo irteera egingo dute hilaren 11n, eguna. Legazpiko, Errenteriko eta Irungo taldeek parte hartuko dute. Bukatzeko, batera bazkalduko dute. Gaur, astehena, da izena emateko azken eguna.

943 25 05 05
goinkaria@goiiena.com

ELGETA
> Tortilla lehiaketan ize-na eman daiteke

Sagardo Egunean, irailak 20, tortilla lehiaketa egingo dute, eta ize-na emateko aukera dago hilaren 18a arte, liburutegian.

BERGARA

> 1948an jaiotakoek, Hondarribira irteera

1948an jaiotako berigarrek Hondarribira irteera egingo parada dute hilaren 27an. Besteak beste, alde zaharretik bisita gidatua izango dute, eta baziaria. Izena emateko, sartu 65 euro Euskadiko Kutxako ireki duten kontuan.

OÑATI

> 1956an jaiotakoekin kinto ospakizuna

1956an jaiotako oñatiarrek ospakizuna izango dute hilaren 20an: Arrikutzeko eta Sardilikoi kobazuloak ikuusi eta gero, Araozko elkartean bazkalduko

dute. Izena emateko, joan Umerez tabernara edo deitu 645 96 95 69 telefonora (Mirari), hilaren 10a baino lehen.

BERGARA

> San Joxeperen danborradako entseguak

San Joxepe elkartek jakinarazten die San Martinetako danborradan parte hartu nahi dutenei entseguak egingo dituztela martitzent eta eguenetan, Seminario patioan, 20:00etan.

BERGARA

> 1942an jaiotakoek, Bilbora irteera

1942an jaiotako berigarrek Bilbora irteera egingo dute irailaren 27an. 14:30ean, jatetxe ezagun baten bazkalduko dute. 19:00etan bueltatuko dira. Izenematea zabalik dago Azpeitxin, Mizpildin eta Edelen, 15 eurotan.

BERGARA

> Bainuetxea itxi egingo dute gaur, astehena

Bainuetxea (Spa) itxita egongo da irailaren 21a arte, konponetak egiteko. Hilaren 15etik 21era, kirol eremu guztia egongo da itxita.

ARRASATE

> 1958an jaiotakoekin kinto ospakizuna egingo dute

1958an jaiotako arrastearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an. Izena emateko, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako euren kontuan.

etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiiena.com

Poltsikoan zuloa eta prezioak berdin

Nik ez dakit zuek, baina ni hasi naiz apurtxo bat errespetuz begiratzen poltsikoari, komunikabideetan sarriago ikusten ditugu-eta albiste alarmistak. Egubakotzeko GOIENKARIAn, adibidez, irakurri genuen Mondragon Taldea badabilela aurre-erretiroa 55 urtera jaisteko aukera aztertzen; irabazi gutxiago ere izan ditu Fagorrek. Saltoki batzuk ere ageri dira esanez denboraldia eskas samar joan dela eta beherapen sasoia luzatu egin dutela. Kiroletan ere ekonomia kontuak hasi dira irteten, adibidez,

"Jantzi-dendara sartu, eta ezer erozi barik atera nintzen, krisia buruan"

> Lapurretak momen

tuz Arrasaten edo inguruan ez dut halakorrik entzun, baina Soraluzen, adibidez, autoen erregai deposito bat baino gehiago zulatu dituzte abuztuan, erregai lapurtzeko.

> Astean 65 orduko

lanaldia ezartzea aztertzen dabiltza, produkzioa (edo irabaziak?) handitzeko; non dira orain arte eta urte mordoska hauetan pilatuta egon beharko liratekeen enpresarien irabaziak?

debagoiendarak kanpoan

Onintza Garai > Arrasate

"Gure bailaran egiten ari diren sarraskiak onartezinak lirateke Eskozian"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Eskozia ondo baino hobeto ezagutzen arida Onintza Garai (1977, Arrasate). Egun Edinburgo dago, baina azken sei hilabeteak Alexandrian-Eskozia-kabarnealdeko herrioxka, autoz Edinburgotik ordu eta erdira- egin ditu. Denbora luzez izan da Edinburgo, eta Alexandriara sei hilabetez joan zen, lankontuak zirela-eta, "haizefresko apur bat" hartzera. Nekazaritzan aditu, natura eta mendia maite ditu.

Has gaitezen Edinburgo pasa dituzun urteekin. Zer nabarmenduko zenuke Eskozia-kiriburutik?

Edinburgotik gehien harritu ninduena kulturalki espero baino askoz aberasgarriagoa dela izan zen. Hemen ikasle egin nituen urteetan munduko herrialde guztietako jendea ezagutu nuen.

Edinburgoko esperientziaren ostean, aldaketa handia izan alda Alexandrian bizi zitezka?

Alexandria beste mundu bat da. Herri txikia da, 10.000 biztanle inguru dituena. Gustura bizi izan naizen arren, herri gogorra da bertan bizitzeko. Orain dela hiru belaunaldi oso ingurune aberatsa zen Alexandriako: hiru whisky destillategi, Polaroid enpresaren lantegia, tindategiak, auto fabrikak...

Orain urte gutxi, ordea, egoera ekonomikoak txarrera egin zuen, eta langabezia mailak nabarmen egin zuen gora. Egoera hobetzeko diru laguntzak ematen hasi ziren, baina ez da irtenbidea izan. Jendeak ez du lana egiterik nahi, zertarako soldata irabazi etxean ordainduta izanda. Hala, alkoholismo tasak gora egin du eta dro-



ONINTZA GARAI

Gu zintzoagoak ei gara

Euskaldunok eskoziarrak baino zintzoagoak omen gara hitza ematerako orduan; hala dio Garaik.

ga asko dago. Gogorra da goizero jendea edozein izkinatan botata ikustea, zerbeza latarekin. Hala ere, oso jatorrak dira eta eurak pozik bizi dira.

Eta hala ere, gustura izan zara? Edo gusturago zaude Edinburgo?

Alexandriako periferian bizi nintzen, Bonhill auzoan. Eta gustura egon nintzen, orduan Edinburgotik irtetea beharrezkoan nuen.

Hala ere, Edinburgora itzultzeko gogo handiak nituen: giro sozialago batean egotea nahi nuen, jende artean izatea gustatzen zait-eta. Gainera, Alexandriako lan kontratua amaitu zaidanean etorri naiz Edinburgora. Ea Alexandrian hasitako lana hemen jarraitzeke. Eskozia herrialde aurreratua da, baina hemengo politikariekin ingurugiroarekiko kontzientzia eta hura kontserbatzeko premia askoz gehiago baloratzen dute.

Zure ikasketak ingurugiroari hertsiki lotuta daude. Naturarekin duzun harremana sendotu egin al duzu Eskozian?

Ba egia esan, bai. Eskozian oso paraje politik ezagutu ditut, Argyll and Bute ingurua, esaterako. Hala ere, Udalaitz eta inguruko mendien edertasuna ere falant botatzen dut.

Hori bai, Arrasatera bueltan joaten naizen aldietan tristura handia ematen dit interes ekonomikoengatik gure bailara nola txikitzen ari diren ikustea. Aurrerapenaren izenean sekulako sarraskiak egiten dituzte; hemen hori onartezina litzateke. Eskozia herrialde aurreratua da, baina hemengo politikariekin ingurugiroarekiko kontzientzia eta hura kontserbatzeko premia askoz gehiago baloratzen dute.

kale inuesta**Zer moduz joan dira oporrak? Baduzu eskolara itzultzeko gogorik?**

Ander Najera
Ikaslea
Bergara



Asier Muñoz
Ikaslea
Bergara



Iñaki Olabarria
Ikaslea
Bergara



Irati Eguren
Ikaslea
Bergara

Primeran pasa dut oportretan, nahiz eta egunen batean edo beste apur bat aspertu. Gurasoek erositako liburuxka batzuekin, lan pixka bat ere egin dut. Gustura itzuliko naiz eskolara, badut lagunekin egoteko gogoa.

Oso ondo ibili naiz oportretan. Aspertu? batere ez. Irakasleak agindutako etxeko languztiak ere eginda ditut eta gertu nago ikasturte berriari ekiteko; apur bat urduri, baina ilusioz, lehen egunetarako gehienbat.

Ederki pasa dut uda, aspertzeko tarte barik. Etxeko lanak egin ditut eta, nire kontu, irakurten ere aritu naiz. Lagunekin elkartzea da eskolara itzultzearen gauzarrak onena eta, zentzu horretan, badut gogoa.

Primeran ibili naiz oportretan, baina pozik nago eskolara itzultzeko ere. Lau urte izanik, ez dut udan lanik izan, baina marrazkiak egin ditut, gustatzen zait eta. Badut andereñoa eta ikaskideak ikusteko gogoa.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiiena.com

DEBAGOIENA

> Zine emanaldiak noizko?

Egubakoitzean Goienkaria eskuetan hartu eta agenda kontsultazean irakurle batek sorpresa hartu zuen ibarrean zine emanaldiak ez zegoela ikustean. Oñatiko eta Arrasateko zinema aretoetan ez zegoen film emanaldirik eta hori dela, kultura programatzaleei eta aretoetako arduradunei lehenbailehen zinema emanaldiak egiteko eskatu nahi die. Irakurle honek penaz ikusiten du gero eta zine emanaldi gutxiago ikusten direla, ibarrean zein Gipuzkoako beste hainbat herrian.

ARETXABAleta

> Andremaixetako antolatzaleei zorionak

Aretxabaletako erretiratuko batek zorionak eman nahi dizkie herriko jaietako antolatzaleei eta ekitaldian parte hartu zuten herritarrei. Abuztuko erdialdean herriko giroa alaitzeko ekitaldi interesgarriak egon zirela azpimarratu nahi du.

BERGARA

> Zaborrak errekar?

Abuztuan Bergaran geratu zen herritar batek deitu zigun aurreko astean, haserre. Hark esan zigunez, behin baino gehiagotan tokatu zaio Deba ibaiaren ondotik dauden etxeetatik zaborra errekarra botatzen ikustea. Portaera guztiz lotsagarria dela dio eta horren aurrean Udalak (edo dagokionak) zigor gogorrak jarri beharko lituzketela uste du irakurle honek.

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendiola Erredakzioa Goiatz Arana, Maider Arregi, Larraitz Zeberio Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaiztaran

EGOITZA NAGUSIA BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12 Posta-e: goienkaria@goiiena.com

ORDEZKARITZAK ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12 Posta-e: arrasate@goiiena.com

ARETXABAleta 20550 Durango 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 77 18 54 Posta-e: aretxabaleta@goiiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09 Posta-e: publi@goiiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako
Foru Aldundia

zorroztalea

Joxemari Muxika

Erabakiak kooperatibetan

“Duela urtebete baikortasuna zena, sei hilabeteren buruan *hozte* bihurtu zen, eta atzo jada «bizitzen falta» zen. Hori da Gipuzkoako Merkataritza Ganberak azken urte eta erdian Gipuzkoako ekonomiari buruz egin duen irakurketaren laburpena”.

Berria > 2008-09-06



Ekonomia moteltzeak ez die era berean eragiten sektore eta enpresa guztiei. Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren arabera nazioartera gutxien zabaldu direnei eta eraikuntzarekin lotura estuena dutenei eragiten ari da batez ere. Gurean zuzen harrapatu ditu etxetresnetako lantegiak eta motelaldia baino gehiago krisia da haientzako.

Krisi kontuak 80ko hamarkadan enpresek bizi izandakoaren bilakaera ekartzen dit gogora. Langileentzat urte gogorrak izan ziren, bai kooperatibakoentzat baita beste enpresekoentzat ere. Enpresa batzutako lanpostuak bostetik batera jeitsita gelditu ziren eta enpresa gutxi batzuk bakarrik lortu zuten lanpostuei eustea. Hauen artean kooperatibak izan ziren egoki antzean aurrera egitea eta lanpostuak mantentzea lortu zutenetakoak. Espero dezagun oraingo krisi honetan ere aterabideak aurkituko direla.

Krisia datorren garai honetan bada gauza bat orain 25 urteko ezberdina: orduan eskualdetik kanpora zeuden lanpostuak salerosketa eta arreta teknikoko zerbitzuak baino ez ziren, lanpostu gutxi beraz. Gaur egun kooperatibak deslokaliatu egin dira eta ekoizpenerako lantegi ugari dituzte kanpoan lanpostu askorekin, nahiz eta bertako langileak baziak ez izan.

Lan-kooperatibaren printzipioetan lanpostuak baziak ez dira batzuk nagusi eta bestek langile. Gaur kooperatibek munduan zehar dituzten lanpostuetako langileetatik zenbat dira baziak eta zenbat langile soil? Baziak izatera iristen diren heinean non kokatuko da “pertsona bat bota bat” sistemaren ondorioz agintea? Erabaki guneak deslokaliatzeak konponbidea ekarriko luke?

Lantoki bakoitzerako aginte burujabea onartzen ez bada, zaila ikusten dut orain arteko erabaki maila gure eskualdean mantentzea.

"Krisi kontuak 80ko hamarkadan enpresek bizi izandakoak ekartzen dit gogora"

"Espero dezagun oraingoan ere aterabideak aurkituko direla"



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Aukeak kirol zerbitzu berriak eskainiko ditu ikasturte berrian > **10**



> **BERGARA**
Udalean eta administrazio eremuan euskaren erabilera arautzeko kanpaina > **11**



> **LEINTZ GATZAGA**
Gaztainuzketako mendi etxeen kudeaketa lehiaketara ateria du Udalak > **14**

JAIAK > ANDRAMAIXAK LEINTZ GATZAGAN

Rock kontzertuak eta askotariko dantzak, aurtengo jaietako izarrak

BALORAZIOA

Antolatzaileak pozik agertu dira Andrameixeek orain arte emandakoarekin

AZKEN TXANPA

Gaurkoia izango da azken eguna eta Otxandioko bisita jasoko dute

GOIATZ ARANA > LEINTZ GATZAGA

Gatzagarrek festa giroan eman dute aste bukaera; barikuan abiarazi zituzten Andramaixak eta, orduz geroztik, ez dute atseden hartzeko tarte handirik izan.

Bariku gaueko rock kontzertua zen aurtengo jaietako hitzordu nagusietako bat eta ibarreko zaleek bikain erantzun zuten, nahiz eta Ainara Zubillaga Kultura zinegotziak aitortu digun jende gehiago espero zutela. Bost talderen emanaldiak zeuden aurreikusita, baina batek huts egin zuen eta herri bertako musikari batek –bere taldearekin– bete zuen hark utzitako hutsunea. Musika gauak luze jo zuen, ordea, eta erabat bukatzerako jendea erretiratzen ere hasi zen.

Rock kontzertuak bukatuta, pilota partiduen txanda heldu zen eta, harrigarria badirudi ere, izan zen horretara animatu zenik ere. Huts egin ahala kanporatu egiten zituzten, ordea, eta, frontoiko lehiak ez zuen askorik iraun: sakea ateratako gaztea izan zen pilotakada ona egin zuen bakarra eta, beraz, baita urdaiazpikoa etxeratu zuena ere. Eta hala, musika eta pilota kontuak tarteko, eguna argitu eta gerora arte bat baino gehiago ibili zen herrian.

SUSTOA PONIEKIN

Adardun eta poniekin esnatu zen zapatu goiza eta orduan izan zen jaietan izandako istripu bakarra. Ponietako batek estropezu egin zuen eta haren gainean zebilen mutilak ebakia egin zuen bekain gainean, lurrera erorita. Arrasa-



Ohikoa den moduan sokamuturrak ikusmin handia pitzu zuen herritarren artean. Argazkian zapatu eguerdiko irudi bat.

JOSETXO ARANTZABAL

teko Ospitalean puntu batzuk eman zizkioten, baina ez zen ezer larria izan.

Adardun eta poniekin gozatu ederra hartu zuten gaztetxoek ere. Fin ibili ziren, goizeko eta eguediko hitzorduetara hutsik egin

barik, nahiz eta gutxi ausartu ziren zezen txikien aurrean ipin-tzera. Eguedian indarrak hartuta, gozamenak arratsaldean jarraitu zuen, jolas parkean; gustura ibili ziren puzgarrieta saltoka eta quad-etan gidari.

DANTZAREN ALDEKO APUSTUA

Egitarauan denetarikoak jaso arren, dantzari tarte berezia egin nahi izan dio aurten jai batzordeak eta zapatu gauean garbi gera-tu zen hori: herri afarian batutako 150 lagunek, ostean, askotariko dantzak ikusi eta egiteko aukera izan zuten. Hasteko eta behin, A'Marhaba taldearen esku-tik, sabel dantzak izan ziren, eta arropa arinekin jantxitako neska politek gorputza nola mugitzen zuten begira, aho zabalik egon ziren bat baino gehiago. N'Diak-hasrytm perkusio taldeak, bere aldetik, estilo ezberdinako pie-zak jo zituen, eta batzuen eta bes-teen emanaldien artean Tapia eta Leturiaren txanda izan zen. Izan ere, antolatzaileek ez dituzte euskal doinuak ahaztu gura izan eta herritarrek eskertu dute hori: berritasunak begi onez ikusi dituzten arren, Tapia eta Leturia biko-tearekin animatu ziren, gehienbat, dantzan egitera.



Gaztetxoak ilaran, puzgarrieta ibiltzeko zain.

J. ARANTZABAL

Jaiek orain arteko emandako-arekin, pozik agertu dira udal ordezkariak; hasiera motel samarra izan bazen ere, asteburuak aurrera egin ahala, jendea festarekin bat egiten eta giroa animaten joan dira. Zapatu gauean eta domeka eguedian, esaterako, dezenteko mugimendua izan zen.

GAUR GEHIAGO

Urtero oihurari jarraituz, gatzagarrek Otxandioko bisita jasoko dute gaur. 11:00etan, ongi-itorria egingo diete; 12:30ean, meza izango da, Eskoriatzako abesbatzarekin; 16:00etan, umeentzako jolasak; eta 19:00etan, musikarekin, amaitutzat emango dituzte aurtengo jaiak.

Erretiratuendako bada orain-dik ere beste hitzordu bat, ordea: jubilatu-en bazkaria. Zapatu-an, hilak 13, izango da hori. Azken ospakizun horrekin, erretiratuek ere agur esango diete aurtengo Andramaixeit.

KIROLDEGIA > AUKEAK ZERBITZU BERRIAK ESKAINIKO DITU

Kirol zerbitzu berri hauekin ez dago aitzakiarik kirolik ez egiteko

Irailaren 15etik 18ra zerbitzu berriak probatu ahalko dira, doan. Ikastaroak 22an hasiko dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Aukeak hasi berri den ikasturte honetan eskaintzen dituen zerbitzuekin ez dago aitzakiarik kirolik ez egiteko. Edo arazoa behintzat ez da eskaintza aniztasunik ez dagoela izango. Izan ere, Aukeak lehengo zerbitzuak mantentzeaz gain, beste zerbitzu berri batzuk jarri ditu martxan.

BERRITASUN GEHIEN GIMNASIOAN

Zerbitzu guztiak bost multzo ezberdinat sailkatu dituzte: ur jarduerak, gimnasioko jarduerak, hirugarren adineko pertsonentzako jarduerak, pista jarduerak eta jarduera egokituak. Berritasunak gimnasioko jardueretan sartu dituzte batez ere,

eta hauen artean daude, body pump, body balance, batuka, aerobik step, body jam eta pilates ikastaroak.

MATRICALAZIO EPEA ZABALIK

Ikastaro hauek irailaren 22ko astean hasiko dituzte, eta matrikalazio epea dagoeneko zabalik dago. Ikastaroetan parte hartzeako polikiroldegira gerturatzea nahikoa bada ere, Aukeako arduradunek joan aurretik telefonoz deitzea aholkatu dute. Hala, telefonoz izena ematen duenak lehenetasuna izango du, adibidez, jarduera jakin batean jende larregik izena ematen dueneau. Beraz, ikastaroetan parte hartzea nahi duenak hobe du 943 77 16 77 tele-



Beria ez bada ere, ziur spinning-ak jende asko erakarriko duela.

ARTXIBOA

fonora deitzea. Dena den, ez ahaztu bertan aurkeztuta izena ematea ere nahikoa dela.

ATE IREKIENTEKO ASTEA

Matrikulatu aurretik ikastaroak ezagutzen ez dituenak izango du aukera ikastaro berriak probatzeko. Izan ere, zerbitzu berriak ezagutzera emateko ate irekien astea antolatu du Aukeak. Irailaren 15etik 18ra izango da, dohan. Beraz, ariketa bakoitza probatu ostean, norberak aukeratu ahalko du zein den bere gusukoena. Lehen aldia da Arrasateko kirol zerbitzuak horrelako jardunaldiak antolatzen dituela.

BESTELAKO ZERBITZUAK

Bestelako zerbitzu berri batzuk ere eskainiko dira. Besteak beste, herri lasterketen prestaketa egiteko eta hirugarren adineko pertsonei zuzendutako jarduerak eta ezgaitasun fisiko zein psikoak dituztenentzat ere izango dira. Azken hauek, igeriketa eta Atzegiko gimnasio ikastaroetan parte hartzeako aukera izango dute.

Ikastaro guztien inguruko informazio zehatzta biltzen duten bideo bi daude eskuragarri; bata Biztanleen Arreta Zerbitzuan eta bestea, Musakolako kiroldegiaren bertan.

Ikastaroen ordutegiak

Astelehena

18:30: Spinning (hastapena)
19:30: Aerobik-Step
20:30: Spinning (hastapena)

Martitzena

9:15: Batuka
15:00: Spinning (hastapena)
18:30: Body Balance
19:30: Body Jam
20:30: Body Balance

Eguaztena

9:15: Spinning (hastapena)
18:30: Spinning (hastapena)
19:30: Aerobik-Step
20:30: Batuka
20:30: Spinning (hastapena)

Eguena

9:15: Pilates (hastapenaren beharra)
18:30: Body Pump
19:30: Body Balance
19:30: Pilates
20:30: Body Pump

EMAKUME TXOKOA > IRAILETIK ABENDURA ARTEKO EGITARAUA AURKEZTU DUTE

Ikastaro eta ekitaldi interesgarriak izango dira urtea amaitu bitartean

Ikastaroetan izena emateko epea gaurtik hilaren 16ra arte izango da zabalik

Antzerki emanaldiak, mahai inguruak eta ipuin kontaketak antolatu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE Emakumeen txokoak aurkezta du iraileti abendura arteko egitaraua. Denetariko ekitaldiak antolatu dituzte aurren ere. Besteak beste, antzerki emanaldiak, mahai inguruak eta ipuin kontaketak lotu dituzte.

Hilabete honetan, esaterako, ekitaldi bakarra izango da; irailaren 21erako antolatu dute. Virginia Imaz antzezlearen *Enkantatuak* lana ikusiko ahalko da, Amaia Antzokian, 19:30ean. Aipatu obraren euskarazko estreinaldia izango da.

IKASTARO INTERESGARRIAK
Emanaldi ezberdinez gain, ikastaro interesgarriak antolatu ditu

Emakume Txokoak. Interesgarriak eta denetarikoak; pilates edo lotura afektiboen ikastaroetako hasita arte dekoratiboak edo ekialdeko dantzen ikastaroak arte. Ikastaro hauek guztiak, gaur egungo dantza ikastaro eta gizonei zuzendutako komunikazioaren ikastaroa ezik –hauek urriko lehen astean hasiko dira–, irailaren 22ko astean hasi eta abenduaren 19ra arte luztuko dira.

Ikastaro eta tailer gehienak emakumeei zuzenduta daude, eta gainontzekoak, berriz, emakume zein gizonezkoentzako dira. Edozein zalantza argitzeko Emakume Txokora hurbilteza da onena.

Ikastaroak

Pilates (hastapena)

Astelehenetan: 9:30-11:00
Eguenetan: 16:30-18:00

Tai chi (hastapena)

Astelehenetan: 19:00-20:30

Asertitatea eta komunikatzeko gaitasuna

Martitzenetan: 15:30-17:30

Lotura afektiboak

Martitzenetan: 18:00-20:00

Egubakoitzetan: 16:00-17:30

Yoga (hastapena)

Martitzenetan: 9:30-11:00

Komunikazioa eta berdintasun harremarak

Eguaztenetan: 18:30-20:30

Gizonezkoentzat zuzendua

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa

Eguaztenetan: 9:30-11:00 eta 19:00-20:30

Arte apaingarriak

Eguenetan: 15:15-17:15

Gaur egungo dantza

Eguenetan: 18:30-20:30

Ekialdeko dantzak

Egubakoitzetan: 18:00-20:00

OBRAK > ARRASATE

Elizaldeko lanak, otsailera arte

J.B. > ARRASATE

Obra Sailak aditzera eman duenez, lanak amaitzerakoan, hots, otsailean, oinezkoek lehentasuna izango dute Elizalde kalean. Hau da, automobilak sartu eta irten ahal izango dira kale horretara, baina ezingo dute han aparkatu.

PASABIDE LUZEA

Elizalde kaleko lanak amaitzean oinezkoek lehentasuna hartuko dute, eta beraz, Gernika Zumardia pasabidetik Garaia Berrikuntza Guneko pasealeku berriraino joan ahal izango dira. Bestalde, CIG enpresta dabil obrak aurrera eramaten eta 400.000 euro gastatuko dira lanak bukatzeko.



Irudian, 2005eko Euskaren Eguneo ekitaldia.

SAN MARTIN JAIAK > KOFRADIAKO BATZARRA

Erreileno eta tostoi kofradiakoek batzarra egingo dute

Aurtengoa bederatzigarren batzarra izango da; Bergarako kofradiak 19 kide ditu gaur egun

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako Erreileno eta Tostoien Kofradiak bederatzigarren kapitulua ospatuko du irailaren 14an, San Martin jaien barruan. Urtero egiten duten moduan, Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Portugalgo beste kofradia batzuk gongibidatu dituzte ekitaldira.

Irailaren 14an 10:00etan frontoian elkartuko dira harrera egiteko eta jarraian meza entzutea joango dira Moja Klaren elizara. Handik kalejira egingo dute udaletxeko osoko bilkura arerotaraino, eta han kofradiako ohorezko kide berriak izendatutako dituzte. Antolatzaleek uste dute 20tik gora kofradia etorriko direla Bergarara. Ekitaldiaren ostean Lasa jatetxearen bazarria egingo dute. Kofradiako arduradunek jakinarazi dute beste kofradia askok egiten ez duten arren, eurek herriko jen-

dea aukeratu izan dutela orain arte ohorezko kide egiteko, eta aurten ere hala egingo dute, herrian oraindik sari hori merezi duen jende asko dagoelako.

LAU SARI

Hiru gizabanako eta hirukote bat izango dira aurten kofradia kide berriak. Victoriano Gallastegi kofradiako diruzainak azaldu dizkigu izenak: Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu ohi Mari Carmen Gallastegi; Udal Txistulari Bandako zuzendari Ramon Etxaniz; Bergarako Pilota Eskolako zuzendari eta entrenatzaile Reyes Azkoitia eta jaietako antolatzaile eta bultzatzaile garrantzitsuak diren Felix Iñiguez de Heredia Felisín, Luis Mari Gutierrez Gutierrez eta Felix Beitia. Kofradiako presidente Antonia Cansecok adierazi du kofradia edonori irekita dagoela.



Irudian, Victoriano Gallastegi eta Antonia Cansecok.

OIHANA ELORTZA

> HEZKUNTA


Gaurtik aurrera emango diote hasiera 2008-09 ikasturte berriari herriko ikastetxe guztiek

San Martin Herri Eskolak, Mariaren Lagundia Ikastolak eta Ipitza Instituak gaur hasiko dituzte eskolak. San Martin Eskolan, bi urteko haurrak, eguenean hasiko dira. Miguel Altuna Institutuan, berriz, bihar hasiko dira eskolekin. Aranzadi Ikastolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoak bihar hasiko dira eskolan eta DBH eta Batxilergokoak, berriz, eguztenean.

> GARRAIOA

San Martin jaietako zapatan autobus zerbitzua egongo da Elgeta eta Antzuolatik Bergarara

San Martin jaietako zapaturako autobus zerbitzua ipintzea erabaki du Udalak Diputazioaren laguntzarekin. Antzuola-Bergara eta Elgeta-Bergara bitarteko zerbitzua 00:00etatik hasi eta 06:00etara egongo da. Antzuolatik Bergarara orduro egongo da, 00:00etatik hasita eta Elgetatik orduro, 00:30etatik hasita. Bueltarako, berriz, Antzuolara orduro 00:45etatik hasita eta Elgetara orduro 00:10etatik hasita. Bergarako autobus geltokia izango da geltoki bakarra.



GOIENKARIA

San Matei eguna ospatu dute Ubera auzoan

Abuztuaren 31n, San Matei eguna (San Emeterio eta San Zeledonio) ospatu zuten Uberako ermitatxo horretan. Dolu giroan ospatu zuten eguna. Izen ere, bezperan Jose Ramon Badiola auzotarra hil zen. Minutu bateko isolinea egin zen meza ondoren Jose Ramon Badiolaren oroimenez. Ondoren, Bixente Lazcano omendu zuen auzoak, eta auzo-alkateak oroigarri bat eman zion (argazkian). Lazcano urte askoan izan da eta San Mateitako soinujolea. Eguerdian auzo bazkaria egin zuten Uberan.



Bizilagunek erabakitzenten badute, fatxadetako pintadak kendu egingo ditu Udalak ura eta area erabiliz.

MIREIA BIKUÑA

UDALA > ADOSTASUN BERRIA

Bizilagunek erabakiko dute etxeko pintadak kendu edo ez

Fatxadetan egiten dituzten pintadak kendu aurretik bizilagunei galdetzea erabaki du Udalak

Garbitzerakoan kalte txikiagoa egiteko pintadak kentzeko ura eta area erabiltzen dute uztailetik

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aldika hainbat etxebizitzetan eta behebarruetan agertzen diren pintaden inguruko erabaki berria hartu du zerbitzuen batzordeak; alegia, pintadak kendu aurretik bizilagunei galdetuko diete fatxada garbitu gura duten edo ez.

Zerbitzuen batzordeko zinegotzi Jose Mari Igartua azaldu digu garbiketa egiteko jarraituko duten prozedura: "Pintadaren bat ikusten dugunean, eskutitza bidaliko diegu bizilagunei, eta gehiengoak erabaki beharko du kendu edo ez". Dena den, Udalak

ren eskutitza jaso aurretik, bizilagunak jarri daitezke hartu-emanetan udal arduradunekin. "Batzuk berehala garbitu gura dute pareta; eta beste batzuk nahiago dute dagoenetan utzi: fatxada kaltetu egiten delako, edo bestela, berriro margotzen dutelako".

Pintadak kendu gura dituztela erabakiz gero, Donostiatik datorren makinaren zain egon beharko dute. "Herritarrek jakin behar dute fatxada ezin dugula egun batetik bestera garbitu, Donostiatik langile espezialduna etortzen da-eta", dio Igartua.

UZTAILETIK, TEKNIKA BERRIA

Pintadak garbitzerakoan fatxada ahalik eta gutxiengoz kaltetzeko, uztailetik teknika berria erabilten dute. "Orain arte presiopeko ura erabiltzen genuen, baina paretak kaltetu egiten ziren. Orain, aldiz, ura eta area erabiltzen dugu", esan digu Jose Mari Igartua. Teknika berriarekin garbitu dituzte azken pintadak; besteak beste, unibertsitateko, parrokiako, kultura etxe eta plazako pilotaleku pintadak garbitu dituzte. "Teknika garestiagoa da. Azkeneko garbiketan 12.000 euro gastatu ditugu".

LANAK > BERRIKUNTZA

Etxaide eraikuntza enpresak berrituko du Araotzeko plaza

M.B. > OÑATI

Atzerapenarekin hasiko ditu Etxaide enpresak Araotzeko plaza berritzeko lanak. Udalaren hasierako asmoa zen lanak udaberrian hastea, baina oraindik ez dute ezer egin.

BI MOTATAKO GALTZADA HARRIAK

Araotzeko bizilagunek egindako eskaera aintzat hartuta elizaren, bolatokiaren, eskolaren eta fron-

toiaren aurrean dagoen plazan bi motatako galtzada-harriak (adquin) jarriko dituzte. Galtzada-harriak 15x15 zentimetrokoak izango dira, eta guztira, 212 metro koadro eraberrituko dituzte. Foru Aldundiak aurrekontuaren %55a ordainduko du, eta gainerako %45a Udalak hartuko du bere gain. Etxaide enpresak berrikuntza lanok egingo ditu 37.300 euroren truke.



Eliza eta pilotaleku aurreko plaza konponduko dute.

GOENKARIA

> OHARRA

Hilaren 19ra arte zabalik euskaltegiko izenemate epea

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian matrikulazio epea zabalik dute hilaren 19ra arte. Bulegoa zabalik izango dute 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara. Matrikula 943 78 24 96 telefonoan edo euskaltegia@oinati.net helbidean egin dezakete interesatuek. Euskaltegiak ikasteko bi modu eskaintzen ditu: alde batetik, irakaslearekin talde baten parte hartuz; eta beste alde batetik, bakarka eta Internet bidez.

Bestalde, beka sistemaren bidez, bertaratzea eta aprobetaxamendua saritu egingo dute; eta mailak egiazatzeko HABEk egiten dituen azterketak gainditzen dutenei dirulaguntzak emango dizkiete.

> OHARRA

Kuriderixako etxeen bigarren zozketarako oinarriak ikusgai

Otadui Zuhaitzia kaleko Kuriderixa gunean eraikiko dituzten etxe tasatuak esleitzeko oinarriak jende agirian jarri dituzte udal bulegoetan. Hala, iradokizunak egiteko epea gauean bertan bukatzen da. Oinarri horiek hartuko dira kontuan Otadui Zuhaitzia kaleko 12-A eta 12-B zenbakietan eraikiko dituzten etxebizitzta tasatuen zozketa egiteko. Epea itxi ondoren, etxe eskuratu dutenendako izenemate epea zabalduko da. Prozesuarekin bukatzeko zozketa egingo dute.

Hasiera batean, 48 etxebizitzta egin behar zituzten Kuriderixa gunean; baina, lehen deialdian lau etxe bakarrik eman zirenez, 12 egitea erabaki dute.

> KIROLAK

Egubakoitzera arte ate irekien astea egingo dute Zubikoan

Ikasturte berrian eskainiko dituzten ikastaroen nondik norakoak azaltzeko ate irekien astea egingo dute gaurtik egubakoitzera arte. Horrak, E-goitek enpresako arduradun batek zerbitzuen gaineko argibideak emango ditu asteon, 10:15etik 11:15era eta 17:00etatik 21:00etara. Besteak beste, mantentze gimnasia, fit bike, body pump, body balance, body jam eta batuka eta body combat dira emango dituzten ikastaroak. Gainera, fit bike egiterakoan pultsometroen erabilera sustatzeko kanpaina egingo dute hilaren 15etik 25era. Bestalde, muskulazio gelako monitoreoa astelehenetan eta eguztienetan egongo da.

ARETXABAleta > AISIALDIA

Larruzko bitxiak egiten ikasiko dute aretxabaletarrek etzi, eguaztena, Arkupen

Bi talde antolatu dira:
hamabi eta hamasei
urte bitartekoak
izango dira batean eta
adin horretatik
gorakoak bestean

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Udalak iraillerako prestatu duen
kultura egitarauaren barruan,
bitxigintzaren gainekeko ikastaroa
antolatu du etzi, eguaztena, arra-

tsaldean. Txatxilipurdikoak ardu-
ratuko dira esandako ikastaroa
eskaintzeaz.

Bi talde izango dira. Lehenengoak
16:00etatik 18:00etara ikasi-
ko du bitxiak egiten. Hamabi eta
hamasei urte bitarteko gazteak
egongo dira horretan. Hamasei
urtetik gorako beste guztiekin,
berriz, 18:00etatik 20:00etara jar-
dungo dute zeregin berean.

GEHIENEZ 15 LAGUN
Talde bakotza, gehienez, hamab-
ost lagunez osatuta egongo da.
Kultura sailetik azaldu dute ikas-

taro horretan parte hartu gura
duenak, martitzenera arte duela
izena emateko aukera. Arkupen,
gazteleku eta kuadrillategin
eman ahal izango du. Ikastaroa,
esan bezala, kultura etxe berrian
eskainiko dute, bigarren solairuko
tailer gela batean.

Txatxilipurdiko Irune Gabi-
londok esan du ikastaroan larrua
erabilikoa dutela. Oraindik zehaz-
teke dago, baina, zer bitxi egingo
dut. "Momentuan bertan era-
baki dugu, ikastarora bertaratu-
zen den jende kopuruaren arabera",
adierazi du Gabilondok.



Bitxiak egiten ikasten aukera izango dute eguaztenean aretxabaletarrek.

GOIENKARIA

> ZINEA

Zine-kluba martxan jartzeko batzarra antolatu du eguazten arratsaldean herritar talde batek

Herritar talde batek zine-kluba abian jartzea gura du eta horren
gainean hitz egiteko batzarra egitea erabaki du. Eguaztenerako
deitu dute bilkura, hilak 10, Arkupe kultura etxe berrian. Hitzor-
dua 20:00etan jarri dute. Azaldu dute esandako batzarra herritar
guztiei zabalik dagoela. Hala ere, parte hartzeko dei berezia egin
die zine-kluba gustuko duten guztiei edo proposamenaren bat
edo beste dituztenei.

> MENDIA

Pirinioen gainekeko ikus-entzunezkoa eskainiko du Endika Uriondok datorren eguenean, Arkupen

Mendia eta bereziki, Pirinioak gustuko duenak hitzordua du egue-
nean, irailak 11, Arkupe kultura etxearen. *Montaña del Pirineo* ize-
neko ikus-entzunezkoa antolatu dute egun horretarako, 19:30ean.
Endika Uriondo arduratuko da horren gaineke azalpenak ema-
teaz eta irudiak erakustearaz. Kultura sailak irailerako prestatu
duen kultura ekintzen barnean dago ikus-entzunezko hori.

> LANA

Udalak egun erdiz eta aldi baterako lan egiteko informatikaria bilatzeko deia egin du

Udalak informatikaria behar du egun erdiz lan egiteko. Lana aldi
baterako izango dela jakinarazi dute udal iturriek. Hona eska-
tzen dutena: informatikan lizenziatura edo ingeniarri informati-
koia izatea eta 3. hizkuntz eskakizuna edo EGA ere izan behar
dute. Hori izan ezean, euskarako froga egin beharko dute inter-
resatuek. Barikua, hilak 12, da eskaerak aurkezteko azken eguna.
Udaletxera bidali behar dira horiek.

> DIRULAGUNTZAK

Kirol jarduera arruntendako eta ekintza bereziendako laguntzak eska daitezke dagoeneko

Zabalik dago kirol taldeek jarduera arruntendako dirulagun-
tzak esku ahal izateko epea. Dirulaguntza eskabideak 30 lane-
guneko epean aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofi-
zialean deialdia argitaratu zenetik kontatzen hasita. Kontuan
izan behar da abuztuaren 26ko aldizkarian azaldu zela iragar-
kia. Entitateek antolatzen dituzten ekintza bereziendako diru-
laguntzak, bestalde, abenduaren 15a baino lehen aurkeztu
behar dira.

ESKORIATZA > JAIAK

Zapatuan egingo dute jaia San Juan auzoan

Etzi, eguaztena, amaituko da Egokiena elkartean
egingo den herri bazkarian izena emateko epea

M.B. > ESKORIATZA

Aurten ere San Juan kaleko jaiak
ospatuko dituzte han jaiotakoek
eta bertan bizi direnek. Zapatu
honetan, irailak 13, izango da. Egi-
tarau zabala prestatu dute egun
horretara begira.

Ekimenei 11:00etan emango
diente hasiera. Jaiari hasiera ema-
teko etxafuegoak botako dituzte;
txistulariak eta trikitilaria-
bitartean, giroa alaitzeaz ardura-
tuko dira. Ondoren, 12:30ak alde-
ra, Egokiena elkarteko plazatxo-
an elkartuko dira, soinuarekin

lagunduta San Pedro elizarainoko
bidea batera egiteko. Meza
entzun ostean, tabernaz taberna
ibilikoi dira, bazkaltzeko ordua
ailegatu bitartean.

BAZKARIA EGOKIENAN

Egokiena elkartean egingo dute
bazkari herrikoia, 14:30ean.
Jarraian, dantzaldia izango da
han. Eguaztena baino lehen eman
behar da bazkarira joateko izena,
Euskadiko Kutzako honako
kontuan 18 euro euro sartuta: 3035
0044 80 044100737.



Irudian, San Juan kaleko 2006ko jaialdian egindako herri bazkaria.

ARTXIBOA.



2006ko Zuiako Koadrilako Argazki Lehiaketako argazki irabazlea.

ARAMAIO > KULTURA

Zuiako Koadrilako VI. Argazki Lehiaketa abian

Lanak aurkezteko epea urriaren 22an amaitzen da eta Zuiako Koadrilarekin zerikusia izan behar dute

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Pasa den urtetan bezala, aurten ere Zuiako Koadrilak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia librea da eta Zuiako Koadrila osatzen duten sei udalerrietan ateratako argazkiak aurkeztu daitezke. 2008ko urriaren 22a, eguztena, da obrak aurkezteko azken eguna.

Zuiako Koadrilarekin zerikusia duten argazkiak izan beharko dira (ingurumen naturala, soziala eta artistikoa, erakinak, ohiturak, jaiak...). Zuiako Koadrila osatzen duten uda-

lerrieta ateratako argazkiak bakarrik onartuko dira. Gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. Lehenago argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean sari-tu gabekoak izan beharko dute lanek.

Argazkiaren atzealdean honako hau idatzi beharko da: izenburua, kokapen geografikoa eta zein udalerritan atera den. Itxitako kartazalean aurkeztu beharko dira eta "Zuiako Koadrilako VI. Argazki Lehiaketa" eta lanaren izenburua idatzi behar-

ko dira bertan. Egile batek obra bat baino gehiago aurkeztuko balu, lehen aipatutako pausoak jarraitu beharko ditu obra bakotzarekin.

SARIAK

Irabazleak 400 euro eta euskal buztintzako pieza bat eskuratuko ditu; bigarrenaren kasuan 300 euro eta buztintzako pieza bat, eta hirugarrenak 200 euro eta buztintzako pieza bat. Sari horiez gain, argazki bat aukeratuko da udalerrri bakoitzeko eta 75 euroko saria emango zaio horietako bakoitzari. www.cuadrillazulia.com helbidean ikus daiteke lehiaketaren gaineko informazio gehiago.

ELGETA > KANPANDORREKO ORDULARIA

Ordulariak matxuratuta jarraitzen du nahiz eta konpontzeko saiakerak egin diren

Abuztu erditik dago matxuratuta eta udal langileek martxan jartzen badute ere geratu egiten da behin eta berriz

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Udal brigadako bi langileek makina buruhauste dituzte egunetan kanpandorreko ordulariarekin. Abuztu erditik ez dabil behar den moduan. Geratu egiten da eta asteotan behin baino gehiagotan martxan jartzea

asmatu badute ere beti geratu izan da atzera ere. "Ez dakigu ziur zert gertatzen zaion", adierazi du udal langile Fernando Zenitagoiak. "Proba ezberdinak egiten ari gara".

Zenitagoiak adierazi duenez duela urte gutxi batzuk Gasteizko enpresa batek ordulariaren makineria garbitu eta txukundu egin zuen. Orduan, udal langileei ordularia atzeratu edo aurreratzen zen kasuetan zer egin era-kutsi zieten. "Hori da egiten dakin, besterik ez. Orain, ordularia geratu egiten da eta ez dakigu zer gertatzen zaion. Martxan jartzear lortzen dugu, baina geratu egiten da behin eta berriz".

PROBAK EGITEN
Makineria handia eta komple-xua dauka kanpandorreko ordulariak Zenitagoiaren esanetan. Sistemak penduluarekin eta pisuekin funtzionatzen du eta egunotan proba ezberdinak egiten ari dira gertatzen zaiona asmatzeko itxaropenarekin.

"Orain arte egindako konpontze saiakeretan proba ezberdinak egin ditugu, baina ez dugu asmatu".

Elgetan, udalaren ardura da kanpandorreko ordularia. Agian, azkenean, antzerako ordularien mantenuaz ardura-tzen diren teknikariak beharko ditugu herrian.

LEINTZ GATZAGA > TURISMOA

Udalak mendi etxeen kudeaketa lehiaketara atera du

Lau urterako izango da esleipena luzatzeko aukerarekin; interesatuek irailaren 15a artean aurkez ditzakete eskaerak udaletxean

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako mendi etxeak kudeatzeko lehiaketa deia argitaratu du Udalak, eta hilaren 15a bitartean aurkez ditzakete eskaerak interesatuek. Lau urterako izango da esleipena, baina 20 urterta arte luza dezake Udalak lau urtero kontratua berrikusi eta gero. Lehiaketa deialdia abuztuaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta baldintzen eta eskaerak baloratzeko irizpidearen berri ematen du. Argibide gehiago gura izanez gero udaletxera deitu behar da.

HOTELA HILAREN 11N ZABALIK

Gaztagan bizi diren Montse Valerio eta Loren Larrañaga senar-emazteek kudeatu dituzte azken 12 urteotan Gaztainuzketako mendi etxeak. Orain, baina, hotela egin dute herrian: Soran Etxea. Hain zuzen egunean, hilak 11, inauguratuko dute. 500 urte inguru dituen jauregia berritu eta bi izar dituen hotela bihurtu dute. Hamar logela ditu, horietako bat ezinduendako gertatua, 60 lagunendako jangela, 12 lagunendako jangela pribatua eta taberna.



Gaztainuzketan dauden mendi etxeak.

MIRARI ALTUBE

ANTZUOLA > ELIZA

Apaizaren agur meza irailaren 20an

Rafael Eizagirreren lekua Iñigo Mitxelena eta Juan Kruz Mendizabal apaizek beteko dute aurrerantzean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Hainbat urtez Antzuolan eta Bergaran apaiz lanetan jardun ostein, bere herrira, Zarautzera, bueltatuko da Rafael Eizagirre abadea. Hori dela eta, eliztarrek agur-meza egingo dute apaizaren omenez. Errukizko Amaren parrokan izango da meza, irailaren 20an, ohiko orduan, 19:30ean.

Elizkizunean Rafael Eizagirre ordezkatuko duten abadeak ere izango dira, eurendako sarrera meza izango delako. Bergarako San Pedro eta Santa Marina parrokiek eta Antzuolako Errukizko Amare-

nak abadeak partekatzen dituztenez, hortaz, Iñigo Mitxelena edo Juan Kruz Mendizabal abadeek beteko dute orain arteko Rafael Eizagirreren tokia.

Apaiz berriek hainbat aldaketa ekarriko dituzte Antzuolako parrokiara. Uztailean eta abuztuan mezen ordutegia murritzut ostein, oraindik ordutegi hori mantendu dute irailean. Abadeen asmoa da irailaren 20tik aurrera ordutegiaren moldaketa egitea. Horretaz gain, elizaren zaharberritze lanak gainbegiratzeko asmoa azaldu dute baita pastoral lanari dagokionez aldaketak egiteko ere.

Kirola



> FUTBOLA

UDA nagusitu da atzo jokatutako Arrasate Hiria futbol torneoan > **16**



> SASKIBALOA

Javier Zurbano MU saskibaloi taldeko entrenatzaileari elkarrizketa > **19**

> ELKARRIZKETA

Denboraldi honetan lehenengo mailako Numancia taldearen kamiseta jantziko duen Jose Javier Barkero atxabalarrarekin izan gara berbetan > **21**



KENPO > ERAKUSTALDIA LEINTZ GATZAGAN

Kenpo erakustaldia egin zuten Eskoriatzako ikasleek Gatzagan

19 IKASLE LANEAN

5 eta 12 urte bitarteko 19 neska-mutiko aritu ziren Leintz Gatzagako pilotalekuaren

ORDU ERDIKO SAIOA

Defentsa pertsonaleko ariketak egin zituzten gehienbat

FULL DEFENSE

Eskoriatzako eskolan metodo berritzalea lantzen dute

LARRAITZ ZEBERIO > LEINTZ GATZAGA

Eskoriatzako kenpo eskolako 19 ikaslek erakustaldia egin zuten zapatu eguerdian Leintz Gatzagako pilotalekuaren. Rafa Carrieta eta Iker Letonaren gidaritzapean ikasitako teknikak erakutsi zituen 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutiko taldeak. Entrenamendu saio modukoa egin zuten. Beroketa ariketak egin zituzten lehenengo eta teknika kombinatuak zein defentsa pertsonaleko giltzak ondoren. "Kenpoa borroka arte bat da", adierazi digu Rafa Carrieta irakasleak. "Bi hilabete eta erdioko oporren ondotik lau egun besterik ez ditugu izan erakustaldia prestatzeko eta oso pozik nago ikasleek egindako lanarekin".

ASKOTARIKO ARIKETAK

19 ikasleak askotariko ariketak egiten ikusi genituen. Traban ipinitako oztopo bat salto batez gainditzen ikusi genituen baita defentsa eta borroka teknikak erabiltzen ere. Banaka edo binalka ikasleak fikziozko erasotzaleei zein erasotzaile errealei aurre egiten ikusi genituen. Arte martzialetan ohikoa den beste ariketa bat egiten ere ikusi genituen, taulak ostikadaz edo ukabilkadaz



ARIKETA EZBERDINAK Erakustaldian ikasleek defentsa pertsonalera bideratutako ariketa ezberdinak erakutsi zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

apurtzen, hain zuzen ere. Maila ezberdinako ikasleak ikusi genituen erakustaldian, hasi berriak zein laster maila handienetara igoko diren gazteak. "Beste gauza askorendako moduan ikaslearen jarrera erabakigarría da kirol honetan ere. Kenpoa praktikatzen hasteko sei urte beharrezkoak direla uste dugu, baina eskolan badugu bost urteko ikasle bat. Anaiarekin etortzen da, ni aspalditik ezagutzen nau eta bere gaitasunen barruan oso ikasle ona da", esan digu Rafa Carrieta. "Lehenengo urteetan umeek euren gorputzaren ezagutza egiten dute horrelako arte martzialen bidez. Oso aberasgarria zaie zentzu horretan".

FULL DEFENSE METODOA

Rafa Carrieten esanetan kenpoa etengabeko bilakaera izan duen arte martziala da. Diziplina horren bitartez trebetasun mar-

tzialak defentsa pertsonalera egokitzea ekarri du. Eskoriatzako eskolan metodo berria landu dute, full defense metodoa, hain zuzen ere.

"Entrenamenduetarako ego-kitu dugun metodoa da", azaldu du Carrieteek. "Edozein adin, sexu edo gaitasun fisikoko pertsonari egokitu daitekeen metodoa da. Bere helburu bakarra defentsa pertsonala da".

Carrieteek kenpoaren onurak nabarmendu zituen Gatzagako erakustaldia ostean. "Hama-bi urte baino gutxiagoko ikasle-ekin ariketa arinak egiten ditugu. Zer nolako mugimendua egin behar dituzte, defentsarako lehen teknikak eta oinarritzko erremintak ematen dizkiegu. Hori da Gatzagan erakutsi duguna". Gainerako ikasleek egunearan hasiko dute ikasturtea Eskoriatzako Kenpo Eskolan.

JATORRIA

Gurean gero eta ezagunagoa den diziplina

Kenpoa arte martzialen barruan kokatu behar dugu. Jatorri txinatarrekoa da nahiz eta Japonian garapen handia izan duen. "Orain hasi da pixkanaka Europan barrena ezagutzera ematen", adierazi digu Carrieta. "Estatu Batuetan, esaterako, diziplina oso ezaguna da".

"Jatorrizko herrietan, Txinan eta Japonian, kenpoa kirol jarduera moduan praktikatzen dute gaur egun. Gure eskolan defentsa pertsonalera bideratuta daukagu, gehienbat ikasle gazteekin ari garenean. Eraso baten aurrean erreminta interesgarriak eskaintzen ditu gure burua erasotzaileengandik defendatzeko".

FUTBOLA > BERGARA HIRIA TORNEOAK

Penaltietan erabaki zen Bergara Hiria futbol torneoak etxeko taldearen alde

Aloña Mendi eta Bergarako lehenengo taldea iritsi ziren finalera; txantxikuek minutu gutxiren faltan lortu zuten berdinketaren gola

LARRAITZ ZEBERIO > BERGARA
Banakako berdinketarekin amaitu zen zapatuan Bergara Hiria torneoeko finala. Aloña Mendi eta Bergarako lehenengo taldea ziren aurrez aurre eta lehenengo zatian ezer gutxi ikusteko aukera egon bazeen ere atsedenaldiaren ostean etorri ziren golak. Andoni Nafarrete bergararrak egin zuen lehenengoa 50. minutuan. Pozik ziren etxeokoak, baina Aloñak berdintzea lortu zuen. Amaierako 10 minituren faltan etorri zen Roberto Idigoras oñatiarra-ren tantoa.

Gauzak horrela penaltien txanda etorri zen Agorrosinen. Lau jaurtiketa egin zituzten bai



Egindako lau jaurtiketak gol bihurtu zituzten bergararrek.

JOSETXO ARANTZABAL

bergararrek bai oñatiarrek. Mahoneroek denak gauzatu zituzten eta lau gol lortu zituzten. Oñatiarrek ez ziren ate aurrean

hain fin ibili eta bi kale egin zituzten. Honenbestez, etxeoko taldea nagusitu da beraz aurtengo Bergara Hiria futbol torneoan.

Udalaren trofeoa jaso zuten. Torneoeko jokalari onenaren saria ere bergararrendako izan da; Andoni Nafarreterendako, hain zuzen

ere. Gustura ikusi genituen jokalariak eta klubeko arduradunak zer esanik ez.

TORNEOKO BESTE EMAITZAK

Lau talde aritu ziren nor baino nor torneoan; Bergara A, Bergara B, Aloña Mendi eta Antzuola.

Egueneko partiduan Aloña Mendik 1-3 irabazi zion Bergara B taldeari. Barikuan, berriz, Bergara A taldea 3-0 nagusitu zitzaion Antzuolako taldeari.

2. ERREGIONALEKO TALDEA

Bergaran pozik daude torneoak aurten emandakoarekin. Klubak bigarren erregional mailan jokatuko duen taldea sortu du aurten eta erronka garrantzitsua da. Talde horrek galdu egin zuen Aloña Mendiren aurkako kanporaketa, baina itxura oso ona eman zuela uste dute klubean. "Jendea genuen jokatzeko prest eta horrelakoetan ezin da beste alde baterra begiratu", adierazi digute Bergarako klubetik. "Taldeak joko polita erakutsi du Aloña Mendiren aurka. Ea zein emaitza lortzen ditugun txapelketa hasten denean".

Maulanda
merenderoa

Eguneko
menua

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

FUTBOLA > ARRASATE HIRIA TORNEOA

Aretxabaletarrak nagusitu dira Arrasate Hiria txapelketan

UDAk hasieratik egin zituen lanak ondo eta Aloña Mendi hartu zuen mendean; Mondra ere ez zen titulua defendatzeko gauza izan

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE Atzo jokatu zuten liga hasi aurreko azken torneoak Mondrak, UDAk eta Aloña Mendik. Aretxabaletarrak nagusitu dira aurten Arrasate Hiria futbol txapelketan. Lehenengo norgehiagokoa Aloña Mendiren aurka jokatzea egokitu zitzaien Aretxabaletako taldeari eta UDAkoek 1-0 hartu zituzten mendean Josu Zubia-ren mutilak.

Bigarren partiduan Aloña Mendi eta Mondra izan ziren aurrez aurre. Ez zen golik ikus-teko aukerarik izan. Penaltien

txandan, hori bai, txantxikuek lau gol egin zituzten eta Mondrak hiru.

Hirugarren norgehiagokak UDA eta Mondra ipini zituen aurrez aurre. Zelai erdiko jokoa izan zen gehienbat. UDAk pare bat aukera izan zituen partidu amaieran baina gauzatzeko zorterik ez eta lehia golik gabe amaitu zen. Partidu horretan Golik egin ezean Aretxabaletarrak nagusitu dira aurten Arrasate Hiria txapelketan.

POZIK GARAI PENAREKIN

Igor Arenaza gustura agertu dalortutako emaitzarekin. "Torneoa irabaztearekin baino egindako lanagatik nago gustura", adierazi du. "Lan handia egiten ari gara, eta uste dut emaitza hau lan horren fruitua dela".

Arrasate Hiria moduko txapelketak entrenamendu moduan hartzet dituztela esan du Arenazak. "Ondo etortzen dira egindako lana ikusteko eta gainerako taldeen maila ikusteko".

Hastear den denboraldi berri-rako helburuen inguruan galde-tuta Arenazak partiduz partidu joateko asmoa dutela agertu du. "Aurreko urtearekin alderatuta aldaketak egin ditugu eta emaitzak ikustea espero dut. Gauzak uste moduan irteten badira goiko taldeen artean egon beharko genuke".

FUTBOLAREN FESTA

Atzokoa bailarako preferente mai-lako taldeen festa izan zen. Mon-dra, UDA eta Aloña Mendiren zaleak Mojategin batu ziren, bai-ta entrena zaileak eta presiden-teak ere. Datorren aste bukaeran hasiko dute liga txapelketa.

Arrasate Hiria torneoan are-rio izan dituen taldeen gainean honakoak esan ditu Arenazak. "Aloña Mendik jokalari gazte asko ditu aurten. Badakigu Mon-drak jokalari onak dituela eta ondo indartu dela. Ikusiko dugu liga txapelketak aurten zer ematen duen".



UDAk jaso zuen garaikur nagusia, Mondrako presidentearen eskutik.

J. ARANTZABAL

Aretxabaletan gai organikoa banatzen hasi gura dozu?

Aretxabaletako Udalak, Debagoieneko Mankomunitatea eta GFArekin elkarlanean, gai organikoak aparte jasotzeko edukiontzia ipiniko ditu udalerrian.

Eduktionzi hauek giltza bidez irekitzen dira, eta erabili ahal izateko **ezinbestekoa da izena ematea**. Parte hartzen dutenei etxeen gai organikoa banatzeko kuboa eta poltsa konpostagarriak banatuko zaizkie, sailkapena behar bezala egin ahal izateko.

Ekimen hau Gipuzkoako Udalerrri batzuetan egingo den probako esperientziaren parte da. **Zuk ere parte hartu gura baduzu eta oraindik ez baduzu izenik eman, hiru bide dituzu:**

- Telefonoz: 943 08 10 01
- Korreo elektronikoz: anabel@aretxabaleta.net
- Arkupe Kultur Etxera hurbilduz.

Izen emateko epea: irailaren 1etik 12ra.

LANAK > IPINTZA ETA AZKOAGAIN

Azkoagain eta Ipintzako futbol zeliaiak aste honetan zabalduko dituzte

Barikuan, Bergarako Ipintza futbol zeliaia zabalduko dute

Domekan, berriz, Oñatiko Azkoagain futbol zeliaia Aloñak inauguratuko du

MAIDER ARREGI > BERGARA
Bi futbol zeliaiak aste honetan era-biltzeko prest izango dira. Bietan lan nagusienak amaituta daude eta ia guztia prest dute aste honetan bertan futbol partidu eta entrenamenduekin hasteko.

IPINTZA
Joseba Aizpurua Bergarako Udaleko Hirigintza Teknikariak adierazitako moduan, hilaren 12rako lan guztiak amaituta egongo dira. Egindako lanen artean, egungo zorua aprobetxatzuz, belar artifiziala jarri da. Lehengo eremu eta azalerak mantendu direla azaldu du teknikariak. Egindako beste lanen artean, atezaizta berriak, aulkia, zelia argiztatzeko dorreak eta urezatze sistema berria daude. Lanak guztiz amaitzeko, pare bat kontu besterik ez da falta. Bateziki argiteria instalazioan azken ukituak egitea eta zeliaia ingura-



Bergarako Ipintzako futbol zeliaia hilaren 12an, barikuan, zabalduko dute.

GOIENKARIA

tuko duen hesia jartzen amaitzea.

Zelai berriak baldintza guztiak betetzen ditu, eta asteon, federazioko teknikariak zeliaia homologatzeko lanak egingo ditu. Amenanbar enpresak egin ditu lanak eta

700 mila euro inguruko aurrekontua izan du. Mantenuari dagokionez, Udalak makina berezi bat erosiko du zeliaiaren mantenurako eta urezatze lanak egiteko. Bestalde, futbol 11, 7 eta 8 jokatzeaz gain soft-

ball-a (beisbolaren modalitatea) praktikatzeko aukera izango da. Horretarako, zeliaian marra urdin bat markatu da. Eskola kirola eta entrenamenduak ere bertan egiteko aukera izango da.

AZKOAGAIN

Oñatiko Azkoagain futbol zeliaiko lanak ere amaitu dituzte; ukitu batzuk besterik ez dira falta. Oscar Carrascal Udaleko Kirol Teknikariaren esanetan, belar artifiziala eta aldagela berriak jarri dira, zazpi modulu guztira. Horrez gain, taberna berria jarri dute eta aldagela zaharrak eta harmailak saneatu eta margotu dira. Argitze sistema ere berria da.

Mantentze lanetarako urezatze sistema elektroniko berria erabiliko dela gaineratu du Oscar Carrascalek. Obrak Murias enpresak egin ditu eta milioi bat euroko aurrekontua izan dute.

Aurrerantzean, helburua da, futbolean arituko diren ume eta gazte guztiak Azkoagainen entrenatzea. Horregatik Zahorlantegitik Azkoagain futbol zelaira dagoen bidea urbanizatu egingo dute. Urbanizazio lanak egin gabe daude, baina Kirol Teknikariak adierazi dueñe lehenbailehen egingo dira.

Bestalde, Jabier Azpiazu Aloñako presidente oso gustura azaldu da egindako lanarekin. Azpiazuk gaineratu du jokalarien entrenatzeko aukera izan dutela eta pozik azaldu direla zelai berriarekin. "Goxo-goxoa" dela diote eta guztiak bertan entrenatzea nahi izan dutela adierazi du Azpiazuk.



IDIOMASTER
ARRASATE
matrikula zaitez!!

hizkuntzak
Ingelesa, Frantsesa, Alemana



Otalora 29 - 20500 ARRASATE
Tel./ Faxa: 943 79 07 84

idiomaster@euska.net.net www.idiomaster-arrasate.com



AZKARATE
AROZTEGIA

K21
KALITATEA

Impresión Digital UV-LED



AROTZ LANETAN BEHAR DUZUN GUZTIA

Ateak
Leihoa
Horma-armairuak
Tarimak
Parket flotatzailak
Sukaldeak

Telleria 19 B-0-2 B-0-3 // Bergara
Tel.: 943 76 47 19 // 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate



Horma-armairuak

Javier Zurbano > Ointxe elkarteko entrenatzailea

"Kirol arloa eta administratiboa, biak landu behar ditugu"

GOIATZ ARANA > BERGARA

Javier Zurbano Ointxe elkarteko lehenengo maila nazionaleko entrenatzaile berriak egin ditu lehen entrenamendu saioak bere jokalarien. Zapatuan aurre-denboraldiko lehen partidua jokatu zuten Gasteizen eta beste bost bat jokatuko dituzte denboraldia hasi bitartean. Urriaren 4an izango da hori; Cafes Aitona taldea hartuko du etxean.

Zer moduz joan dira taldearekin eman dituzun lehen lan egunak?

Apur bat berandu hasi gara, jokalariek eurek berandu bukatu dutelako urtea; lanari ekiteko nahikoa jende ego arte, itxaron behar izan dugu. Baina ongi iritsi dira eta hori garrantzitsua da: mutil gazteak dira eta fisikoki ez daude oso kaltetuta. Lehen impresioa oso ona da: gogo asko erakutsi dute, betez ere, lehiarako.

Zein da zure teknika?

Erritmo askorekin lan egitea eta, errepikapenean erori barik, teknika ezberdinak erabiltzea: taldeko jokoa, joko librea... Lan egin dezatela batez ere taldean,

baina, bakarka, norbere kontzeptuak lantza ahaztu gabe. Hardezatela hau kadete mailan zeudenean moduan; azken finean joko bat da. Mutilak gozatzen ikusi nahi ditut.

Iñaki Merino ordezkatuko duzu. Zertan igarriko da alda-keta?

Aldaketa nabarmena izango da, Iñaki Merinok zuen taldeak eta nireak ez dutelako zerikusirik; bere taldea beteranoagoa zen, askoz ere esperientzia gehiagoko eta lehen mailan jokatzen urteak zeramatzen sei-zazpi jokalariko taldetxo bat ere bazuen. Soilik hori kontuan izanik, aldea handia da eta pentsatzen dut horrek emaitzetan ere izango duela eragina. Talderik gazteen eta esperientzia gutxienekoa gara, baina nik uste dut ondo ibili gaitezkeela.

Lau jokalari beterano joan zaizkizue, ezta?

Bai. Hiru-lau urtean EBA ligan aritzeko dirurik ez genuela ikusirik, gazteen aldeko apustua egin eta belaunaldi-errelebo

bat prestatzea erabaki genuen, eta beteranoei garbi utzi genien taldean geratzen baziren ere eurak ez zirela izango, orain arte moduan, kantxan taldearen pisua eramango zutenak. Batzuk joatea erabaki zuten eta ulertzeko da. Nik hoberena desio diet, nahiz eta zapore gazi apur bat izan.

Zein da orain helburua?

Igoera fasean sartzen ahaleginduko gara, horrek mailari eustea bermatuko du-eta.

Eta, epe luzera?

Egiten hasi garen lanak bihiru urterako emango ditu fruittuak: oraingo jokalariei eutsi eta junior mailakoei atea irekiz, berriz ere goran egoten saiatuko gara, mailaz igotzeko. Eta, noski, EBA ligan aritzeko behar den dirua ere lortu beharko dugu: errekurto ekonomikoak ez sortzea izan da gure arazo -saiatu garen arren- eta berriz halakorik gerta ez dadin lortu behar dugu orain. Kirol arloa eta alde administratiboa, biak indartu behar ditugu, beraz.

EBA ligara igotzea lortuz gero, joandako jokalariak Ointxe elkartera bueltatzeko aukerarik ikusten duzu?

Hemen denak gara beharrezkoak, eta, nik behintzat, ez diet oztoporik ipiniko etxera bueltau gura izanez gero. Hartu duten erabakiak eragina izango du taldean, noski, baina errespetatu egin behar da. Egunen batean itzuli nahi badute, ongi etorriak izango dira. Beti da hobe etxeko jokalariekin aritzea kanpotik ekarri behar izatea baino.



Javier Zurbano, atzo goizean Bergarako Labegaraieta kirolegian. JOSETXO ARANTZABAL

"Lehen impresioa oso ona izan da: jokalariek gogo asko erakutsi dute, betez ere, lehiarako"

"Batez ere taldean lan egingo dugu, bakarka nork bere kontzeptuak lantza ahaztu gabe"

"Iñaki Merinoren taldea beteranoa zen, nirea ez bezala. Aldea nabarmena da"

"Joandako jokalariek egunen batean itzuli gura badute, ongi etorriak izango dira "

SASKIBALOIA > BERGARA



Hirunako txapelketa antolatu zuten uztailean Bergaran.

Saskibaloia sustatzeko ikastetxeetan egindako lanak emaitza onak eman ditu; jende berria apuntatu da, betez ere, neskak

GOIATZ ARANA > BERGARA

Hilabete barru hasiko dute denboraldia Bergarako saskibaloitako taldeek eta, jada, badabiltza entrenatzen eta aurre-denboraldiko partiduak jokatzen. Baloiarekin lan gutxi egin dute oraindik, bai-

na junior mutilen entrenatzaile Jokin Perezi impresio ona egin dio momentuz ikusitakoak.

TOKIA ARAZO

Herrian saskibaloia ahul zegoela ikusirik, duela hilabete batzuk eskoletara jo zuten, jendea animatzen, eta jasotako erantzuna oso ona izan da, betez ere, neskai dagokienean. Hala, aurten, neskaten infantil mailako talde bat izango da eta, seguruenik, baita juniorretan aritzeko beste bat ere. Mutiletan, infantil, kadete, junior eta senior kategorietako taldeak izango dira. Jendea animatuta, orain arazoa leku falta

da, ordea. Egun Mariaren Lagundian eta Labegaraietan egiten dute lan, eta bi gune horiekin ez dela nahikoa adierazi digu Jokin Perezek: "Batetik, ez da nahikoa, entrenamendu orduak konpartitu egin behar izaten ditugulako. Bestetik, zaila da zaleak toki horietara joatea". Gauzak horrela, erdialdean edo futbol zelai inguruaren kantxa berri bat egiteko eskatu diote Udalari baina, momentuz behintzat, halakorik ez dagoela aurreikusita erantzun diete Udal ordezkariek.

Gurasoekin zuzendaritzarako hasitako planifikazioa finkatzea da beste helburua.

TXIRRINDULARITZA > UNAI ARANTZABALEN AGURRA

"Eskolarik onena izan da ziklismoa niretzat"

Unai Arantzabal txirrindulariak ziklismoa uztea erabaki du; berigararrak uztalean korritu zuen azken lasterketa

EDU MENDIBIL > BERGARA

Atzean geratu dira bakardadean egindako entrenamendu luzeak, tropolean bizi izandako une goxoa, atsekabeak eta podiumeko poztasunak. Unai Arantzabal txirrindulari berigararrak ziklismoa uztea erabaki du. Joan den uztailaren 12an korritu zuen azken lasterketa, Murgian. Bidelan-Kirolgia taldeko txirrindularia atzeko taldearekin iritsi zen helmugara egun horretan. Ordurako bazekien bere azken lasterketa izango zela hura. Handik gutxiira bere erabakiaren berri eman zion familiari lehenbizi eta ondoren Felix Ugalde prestatzaileari eta Bidelaneko taldekoideei. Arantzabalen hitzetan, erabakia hartea ez zaio erraza gertatu. "Nire buruari galduetan diot askotan, azken urtean bereziki, ea txirrindulari profesionala izan nahi nuen. Konturatu naiz bizimodu horrek sakrifizio handia eskatzen duela eta nahiago dudala beste gauza batzuk egin. Azken baten, egunero lau orduz entre-

natzeaz gain, 24 orduz txirrindularia izan behar zara eta ez nuen nahi bide horretatik jarraitzea. Gustatzen zaizkidan beste gauza batzuk egiteko denbora izan nahi dut eta txirrindularitzak ez dit hori eskaientzen. Gauzak horrela, hobe zen bizikleta *aparkatzea*. Inguru koentzat hasieran sorpresa izan zen nire erabakia, baina guztiak ulertu dute eta denbora guztian lagundu naute".

HAMABI URTE

Unai Arantzabalek 22 urte ditu eta 10 urterekin hasi zen Loka-tza taldean. Txikitatik erakutsi zuen maila aparta, gazte mailan batez ere. Terreno guztietan mol-datzenten dakien txirrindularia izan da baina agian erlojupekoetan lortu ditu emaitzarik onenak. Izan ere, amateur mailan eman-dako bigarren urtean Gervais Memoriala irabazi zuen Aizarnazabalen. Mendian gora ere ez zen atzean geratzen; aurten laugarraren izan zen Gorlako igoeran. Horiek batera, Valladolideko



Azken denboraldia egin du txirrindularitzan Unai Arantzabalek.

JOSETXO ARANTZABAL

Izulian azken bi urteotan esku-ratutako laugarren postua nabarmentzen du Arantzabalek.

Aurtengo denboraldian zehar komentatu izan da profesionale-tara igotzeko aukera izango zuela. Hain zuzen, Orbea Oreka berigararrarekiko interesa azaldu zuen; Euskaltel-Euskadiko filialera pasatzeko aukera hor zegoen. "Amateur mailan nahi-ko ondo moldatu naiz baina ondo pentsatuta eta gero ez nuen nahi

aurrerago jarraitzerik. Ondo zabiltzanean beti ikusten dira gauzak hobeto, baina gauzak ez doazenean halako ondo, zalan-tzak datoz. Erabakia hartzeko ordua iritsi zen eta argi ikusi nuen ez zuela merezi jarraitzea. Oraindik ere kosta egiten zait ohi-tea, sentsazio arraroa daukat. Azken baten txirrindularitzak dena eman dit, heztekoi eskolarik onena izan da niretzat. Alboan izan diren guztieie eskerrak eman

nahi dizkiet".

BERGAN LANEA

Azken lasterketa korritu zuen herrian, Murgian, Errekurtso Naturalean Antolaketa eta Gestio-ko ikasketak egin zituen Unaik. Joan den astean bertan lorenzain plaza eskuratu zuen Bergarako Udalean eta San Martin jaien ostean hasiko da lanean. Bizikleta albo batera laga eta etapa berri batik ordua izango da. Atzean geratu da orain arte

TXIRRINDULARITZA > MENDIKO BIZIKLETA

Partaide asko atzo Gatzagako mendiko bizikleta proban

E.M. > LEINTZ GATZAGA

Antolatzaileak pozik azaldu ziren Leintz Gatzagako jaien barruan atzo goizean jokatutako mendiko bizikletako probaren amaietan. Orain arteko ekitaldirik borobilenetakoia izan zen atzokoia. Eguraldia lagun, nagusien proban 117 partaide izan ziren irteeran 9:30ean, Gatzagako plazan. Aurreko urteotan bezala, Dorletako Ama Txirrindulari Elkartea arduratu zen proba antolatzea. Atzokoia seigarren ekitaldia zen eta nobedade gisa ibilbide berria izan zuten partaideek. Guztiak pixka bat sufritu behar izan zuten Gatzaga inguruko aldarpetan. 30 kilometroko ibilbidea prestatu

zuren antolatzaileek eta txirrin-dularien arabera, erabat asma-tu zuten ibilbidearekin. Eguerdi-ko ordu batak aldera amaitu zuten ibilbidea.

22 GAZTETXO

Ordurako, gaztetxoek amaituta zeukaten ibilbidea. 22 neska-mutikok hartzenten parte txiki-en proban eta 5 kilometro inguru-ko ibilbidea izan zuten hain-ek. Guztiak sasoi betean direla era-kutsi zuten.

Atzoko proba amaitutakoan, antolatzaileek urdaiazpikoa, jakiak eta bestelakoak zozketa-tu zituzten partaideen artean, Denak joan ziren pozik etxera.



Partaideak atzo, Leintz Gatzagako plazako irteeran.

JOSETXO ARANTZABAL

> MENDIA

Opakuara mendi irteera Besaiderekin, irailaren 14an

Arrasateko Besaide Mendizaleen Elkarteak Roman-Baio-Opakua irteera iragarri du hilaren 14rako. Irteera 07:30ean izango da. Izena emateko epea gaurtik asteazkenera bitartean dago zabalik. Argibideak 943 77 39 66 telefono zenbakian.

> BERGARA

Spa zerbitzua itxiko dute gaur garbiketa lanak egiteko

Agorrosin Ekintza Gunean spa zerbitzua itxiko dute gaur, astelehena. Garbiketa eta bes-telako konponketa lanak dire-la eta, ezin izango da erabili hilaren 22ra arte. Bestalde, irailaren 15etik 21era kirol eremu guztia itxiko dute garbiketa egiteko.

Jose Javier Barkero > Futbol jokalaria

"Bartzelonari irabaztea, inoiz pentsa daitekeen itzulera onena izan da"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Jose Javier Barkero (Aretxabaleta, 1979) berriro ere lehenengo mailara itzuli da. Realean hasitako jokalariak, azken bi urteak Albaceten egin eta gero, Numancian jokatuko du aurten. Taldearen helburuez berba egin dugu Barkerorekin.

Nolako izan da berriro lehenengo mailara itzultzea?

Pentsa daitekeen onena izan da; izan ere, Bartzelonaren aurka jokatu eta gainera irabazteazizugarria da. Lehenengo mailara itzultzeko partidu onena izan da. Gainera, Soriako hiria oso pozik eta motibatuta dago futbol taldearekin. Horregatik, irabazi eta gainera harmailak beteta ikustea oso pozgarria izan da.

Gainera, niretako pertsonalki ere polita izan da. Bi urte lehenengo mailan jokatu barik nengoen; eta, modu honetan bueltaeztea ona izan da.

Espero zenuen berriro lehen mailan jokatzea?

Niretzako opari bat izan da. Iaz asko sufritu nuen Albaceten eta aukera gutxi ikusten nuen lehenengo mailan jokatzeko. Hortaz, lehenengo mailan jokatu eta gainera horrelako partidua bat irabaztea izugarria izan da bai niretzako eta baita taldearentzako ere.

Hasierako hamaikakoan jokatu zenuen.

Bai, denboraldiaurreko partiduetan ere hasierako hamaikakoan jokatu dut eta lehenengo

"Denboraldiaurrean ere entrenatzailaren konfiantza izan dut hamaikakoan"

"Hemen euskaldun asko aurkitu ditut, tartean, Patxi Bedia arrasatearra"



Jose Javier Barkerok Numanciaren kamisetarekin jokatuko du aurten.

samurragoa izaten da taldean eta dinamikan sartzea.

Lehenengo mailako aurrekonttu baxuena duen taldea da Numancia. Nolako kluba da?

Beti esan izan didate oso familiarra zela; eta, uztailean etorri nintzenean ikusi nuen hori horrela zela. Elkarteko jendea oso hurbila da eta beti daude ondoan zure egoera zein den jakiteko. Gu hobeto egoteko ahal den guztia egiten dute. Hori beste elkarrebatuetan ez da ematen.

Elkartearen helburua 6.000 baziak egitea zen eta hori lortu duzue.

Bai, zale berriak etorri dira aurten partiduak ikustera; hortaz, jendearen babesea jaso dugu. Guretako garrantzitsua zen aurtengo denboraldian harmailak beteta izatea; izan ere, gure zelaia aurkarientzako zelai zaila izan behar da. Zaila izango da hiru puntuak Soriatik eramatea.

Ze talde ikusten duzu faborito liga irabazteko?

Betikoak: Bartzelona, Madril, Villarreal ere hor izango da eta nik uste dut aurtengo sorpresa Atletico de Madril izango dela.

Nola ikusten duzu Realak?

Egoera txarra dute. Bainak, talde bezala talde ona dute eta ea lehenengo mailara igotzeko gauza diren. Poztuko nintzateke!

Non ikusten dudan nire burua? Hiru urterako sinatu dut eta pozik nago Sorian. Oraingoz hemen ikusten dut.

"Realak egoera txarrean dago baina uste dut talde ona duela mailaz igotzeko"

"Liga irabazteko faboritoak betikoak dira: Bartzelona, Madril eta baita Villarreal ere"

partiduan ere misterraren konfiantza izan dut. Niretzako pozgarria izan da; lehenengo mailara itzuli eta gainera titular bezala jokatzea ondo dago. Badirudi entrenatzialeak nigan konfiantza duela eta pozik nago. Ea datorren asteko partiduan, Madrilaren, jokatzeko aukera dudan; eta, ea irabazi eta sorpresa emateko gauza garen.

Zein izango da aurten Numancia taldearen helburua?

Guretzako maila mantentzea izango da lehenengo helburua. 40.000 pertsonako hiria da Soria;

hortaz, lehenengo mailan jokatzea oparia da. Taldeak iaz denboraldi borobilera egin zuen; horregatik, aurtengo urtea gozatzeko urtea izango da, baina era berean, sufritu egin beharko dugu maila mantentzeko.

Zein izango da zure lana taldean?

Betikoa. Ezkerrean jokatu izan dut beti; gainera, taldearen dinamikan sartzen naizen jokalaria naiz. Helburua nire onena ematea izango da; eta, ea taldeak nire lana igartzen duen. Hori izango litzateke onena.

Nola moldatu zara taldeko lanera eta girora?

Oso ondo. Jokalari onez osatutako taldea da Numancia. Gainera, Euskal Herriko eta Iparraldeko jende ugari dago. Beti izaten da samurragoa horko jendea taldean egotea. Nik zorte hori izan dut eta oso pozik nago bai taldearekin eta baita hiriarekin ere.

Gainera, Patxi Bedia arrasatearra ere Numancian dago.

Bai, Patxi fisio lanetan dabil. Gainera, Gorka Brit lasartearra, Bilboko beste hainbat... euskaldun asko daude. Horregatik

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko blog komertzialak](http://www.goiena.net-eko/blog/komertzialak)



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
jpenagarikano@goiena.com • Telefonoa: 943 25 05 05

Goiena.net



www.goiena.net/blogak

/aebpn	/denetik	/gertu	/korozabaleta	/perfipar
/aiastui	/dragon-oriental	/gorkataxi	/kizkur	/puerta-ingles
/aranxta	/dukienna	/gorla	/markiegi	/richimaier
/aretxargi	/ego	/gurea	/maulanda	/tabernaberri
/argi-plastik	/eguzkigraf	/gutzizeder	/mayte	/udalatx
/arregi	/ekilore	/hamaiakataberna	/merkeopari	/udalaitz
/atai	/ekin	/itxaseder	/multiópticas	/urdeki
/azkarate	/elejalde	/irudisport	/ohiak	/ugartearotza
/bastida	/ezkutuorly	/ixaun	/ogizun	/urbjeta
/briz-	/galgorri	/izeder	/okipark	/urku
aseguruak	/gallastegi	/jcracing	/óptico	/vitoria
/BZ-sistemas	/ganesha	/lamaino-etxeberri	/otzeta	/zainduz
/bolsukaldeak	/garala	/lorelan	/pando	/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejate-txea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.llura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.blark.net



ikasi egingo duzu

**INGELESA, EUSKERA,
FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA.**

palabrahitzaword

eskola:

**ESKORIATZA-ARAMAIO
ARETXABAleta-ARRASATE-OÑATI**



ARRASATE-MONDRAgON
Avda. Alava, 4
943 71 20 55

ONATI-ONATE
Olakua, 14
943 71 60 00

BILBO-BILBAO
Buenos Aires, 7
94 661 34 67

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Zubieta, 26
943 43 31 02

VITORIA-GASTEIZ
Florida, 8-A
945 15 01 55



Cambridge Unibertsitateko
azterketak gure zentroan.



ESKOla
ERAGINKORRAK,
NAHIERAKO ESKOLAK

MAILA GUZTIAK,
ADIN GUZTIETAKO
RAKO



> ATZEKO KALEKO JAIAK

Bihar bukatuko dira Atzeko Kaleko jaiak **> 24**



> ARGAZKI LEHIAKETA

Goienkariak antolatu du irakurleendako lehiaketa **> 25-26**



> VIRGINIA IMAZ

Ohiulari Clown taldeko zuzendariairekin izan gara aste bukaeran. **> 27**



SANTUTEGIA Arantzazu, XX. mende hasierako argazkian.

FRANTZISKOTARRAK



SANTUTEGIA GAUR EGUN Argazkian santutegia eta hospederoa ikusten dira.

JOSETXO ARANTZABAL

Arantzazuko Santutegia Hotela, erromesendako leku modernoa

Guztira, 110 lagunendako leku da duka hotelak. Jantokian, berriz, 200 lagun sartzen dira

Hospederia zaharrak bezala, erromes kutsua duka hotel berriak

MAIDER ARREGI > OÑATI

Egun hauetarako Arantzazuko Santutegia Hotelean leku har-tea ezinezkoa bilakatu da. Izan ere, abuztuaren 15ean ateak ireki zituenetik harrera ezin hobea izan du. Koldo Gomez, hotelaren zuzendaria, oso pozik azaldu da eta uste baino jende gehiago jaso dutela adierazi du: "Ez genuen

espero horrenbeste jende, sekula-kolpe positiboa hartu dugu". Arantzazuko hospederia zaharra hiru izarreko hotel bilakatua da. Hiru urte pasatxo iraun ditutte lanek, baina lortutako emaitzak jende asko txunditu eta era-kerri du hotelera.

ESKAINTZA ZABALA

Hiru izarretako hotelak 52 logela ditu. Guztiek, gainera, 25 metro koadrotik gora dituzte; bista zoragarri eta ezberdinak: santutegira bertara, sakanera, kalera... bezeroen eskari eta nahi guztiaik asetzeko prestatuta daude.

Lehen solairuan, berriz, kafetegia dago. Kalera begira dagoen beirate handi bat duka. 200 lagunendako jangela ere badu jatetxeak. Bertako bezeroendako ez ezik, jantokia eta taberna gerturatzan den edonoren eskura egongo dira. Ezkontzak, bazkaria edota bestelako ospakizunak, ere egiteko

aukera izango da hotel berrian. Sukaldari nagusia Iñaki Aldabe legazpiarra da baina, Tolosako Frontoi jatetxeko Roberto Ruiz sukaldaria guztia gainbegiratzen du. Azpi-solairuan, egonge-

la bat dago bezeroek atseden hartzeko. Besteak beste, jokoak, telebista eta DVD-a, sofak eta liburutegi txiki bat dituzte bertan lasai egoteko eta atseden hartzeko. Baina, zalantza gabe,

nobedade handiena hotelak laster martxan izango duen hidroterapia zerbitzua da. Oraindik azken ukituak falta zaizkio eta ondorengo hilabeteetan zabalduko dute. Hidroterapia zerbi-

Atseden hartzeko egongela bat dute hoteleko bezeroek

Arantzazuko Santutegia Hotelean eskaintza ezberdinaren artean egongela bat ere badauka bezeroak lasai atseden har dezaten. Berta bestea beste, jokoak, telebista eta dvd-a, sofak eta liburutegi txiki bat dute bertan lasai egoteko. Bista zoragarriak dituzte gaibera bertatik: santutegiko sakana eta santutegia bera ikus daitezke hoteleko egongelatik.



Egongelan bezeroak kartetan jokatzen.

MAIDER ARREGI

Hiru izarreko hotela, erromesendako leku modernoak

(23. orrialdetik dator)

hiru txorro ezberdinak dutxak ditu. Zerbitzu hori guztiendako egongo da zabalik. Prezia orduko 12 euro izango da. Gainera, berategi ederra eta bista zoragarriak daude sakanera begira.

BEDERATZIURRENEKO ESKAINTA

Gau bat logela bikoitzean 60 euro kostatzen da. Gau kopurua handitzen bada, merkeagoa da. Bederatzizurrenerako, ordea, eskaintza bereziak jarri dituzte: "Tari-fak jaitsi ditugu. Esaterako, agure batek, logela bikoitza, gosaria, bazkaria eta afariarekin 60 euro ordaindudo ditu". Biharko menu berezia jarri dute hoteleko jendearendako eta senitartekoendako. Gainera, okupazioa %100ekoa dute. Irailetik aurrera, Gandiaga Topagunearekin elkarlanean, enpresetako jendea jasotzeko asmoa dutela ere adierazi digu Gomezek.

ERROMES KUTSUA

Koldo Gomez donostiarak azpimarratu du Arantzazuko kutsu historikoa mantendu gura dute-la, ohiturak, isiltasuna, erlijioa... hospederia zaharrak zeukan erromes kutsua, alegia. Horretarako bezeroei tratu "goxoa ematea" ezinbestekoak dela nabarmendu du.

DISEINU MODERNOA

Frantzikortarrek gidatu dute obra. Hospederiak zeukan XVI. mendeko fatxada mantendu egin dute. Barruan, material nobleak erabili dituzte: harria, egurra



Argazkian lehenengo pisuan dagoen *suite* handia ikus daiteke.

MAIDER ARREGI

eta burnia. Espazioak oso irekiak dira eta kolore argiak dira nagusi. Arantzazuko izpiritua mantenduz eta, era berean, modernitatea eta antzinatasuna

transmitituz. "Barrualdeak jasan du aldaketa nagusiena". Behin barrura sartuta, lehengo hospederiak atean zeuzkan kolorezko beirateak ikus daitezke, kuadro

gisa apainduta. Arantzazuko Santutegia Hotela, Arantzazu Fundazioarena da. Gogoratu, fundazioa Frantzikotarren komunitateak, Oñatiko Udalak eta

Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dutela. Inaugurazio ofiziala urria edo azaroan egingo dutela ere iragarri du Koldo Gomez zuzendariak.

JAIAK > ATZEKO KALEKO JAIAK

Giro ezin hobea barikuko rock kontzertuan eta zapatuko mariatxiem emanaldian

Gaur, umeendako karaokea erraldoien kalejira, eta Oñatiko taldeek eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izango da

MAIDER ARREGI > OÑATI

Barikuau, PKU, Golpe de Estado eta Gatillazo taldeek Atzeko Kaleko jaiei hasiera ezin hobea eman zieten. Gaua PKU taldekoek berotu zuten; Golpe de Estadok sutan jarri zuen giroa, eta zoramena Gatillazorekin etorri zen. Jendez lepo bete zen Atzeko Kale.

Zapatuan, berriz, Manolo Irizarriz omenaldia egin zioten Naparenako kantoian. Ondoren, zezenez eta poniez eta mariatxiez emanaldiaz gozatzeko aukera paregabea izan zen. Domekan, Margarita Naparrenari omenaldi hunkigarria egin zioten eta, arratsaldean, Kaixo Taldeak erromeria eskaini zuen.

GAURKO ETA BIHARKO

Jaiak bihar amaituko dira. Bien bitartean gaur, arratsaldean umeendako karaokea eta buruhandi eta erraldoiek kalejira egingo dute, 20:00etan, Oñatiko taldeek kontzertua eskainiko dute.

Martitzenean, hilaren 9an, Arantzazura erromesaldia egingo dute, goizeko 7etan. Eguerdian, meza nagusia izango da. Arratsaldean, buruhandi eta erraldoiek kalejira egingo dute eta, 20:00etan, bideo emanaldiak izango dira. Aurtengo Atzeko Kaleko jaiei gauerdian esango diete agur.



Evaristo, Gatillazo taldeko abeslaria

JOSETXO ARANTZABAL



JOSETXO ARANTZABAL

Gure Leku taberna gainezka Goserekina

Arrasateko Gose taldea gelditu gabe dabil bigarren diskor txuria aurkezteko kontzertu biran. Bariku gauean Gure Leku taberna berritan eskaini zuen hirukote arrasatearrak kontzertua. Taberna jendez bete zen eta lagun arteko kontzertua bilakatu zen. Hain zuzen ere, aurrerantzean, Gure Leku tabernako jabe berriek kontzertuak antolatzeko asmoa daukate. Hala, aurreko jabearekin bezala, ohitura hori mantentzea nahi dute eta zuzeneko musikari garrantzia eman.

www.danbaka.com

DANBAKA))))

I I I . M U S I K A L E H I A K E T A

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldeko
bazara eta taldean zein bakarlarri gisa bazabiltza,
Danbaka Musika Lehiaketa zain daukazu.
Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta
kaleratuko du. Debagoineko talde onenak ere sari
bera eskuratuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com.


irailak 19 izena
emateko
azken
eguna



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENeko GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



PIRINIOAK. Valle de Tena, 4.000 metro ingurura; Pirinioen esentzia, lasaitasuna arnasten.
/Argazkia: Josu Lete.



LLANES. Ainhoak eta Davidek Llanesen eta baserriko lanetan igaro dute udara. Irudian Llanes, Asturiaren. /Argazkia: Ainhoa Altuna /Eskoriatza



BUNIFAZIU. Korsikako Bunifaziu herrian ateratako argazkia da eta ikusgarria da etxeak labar gainean nola mantentzen diren ikustea. Itsas sora jausiko diren sentsazioa ematen du! /Argazkia: Maitane Errasti /Aramaio



ZEZENAK. Errioxako Ribaflecha herrian ateratako argazkia. Herriko jaiak ziren. /Argazkia: Rosa Garcia /Bergara

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

Sariak:

- **1. saria:** Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaiaik-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarentzako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxeen. .



Babeslea:



Laguntzaileak:



ASTE BUKAERA...

Virginia Imazekin



Emanaldirik ez duenean sudur gorria gertu izaten du Virginia Imazek. Egubakoitzean semeak lagundu zion, San Juanen, Bergaran duten baserrian.

JOSETXO ARANTZABAL

"Atseden egunetan ere sudur gorria alde batera uztea oso zaila egiten zait"

Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko zuendari eta pailazoa da, eta Donostian jaio arren Bergaran bizi da

Irakurtzea, paseatzea, musika entzutea, eta batez ere, etxekoekin egotea gustatzen zaio atseden egunetan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Virginia Imaz (Donostia, 1962) Oihulari Klown taldeko zuzendaria da. Jaiotzez donostiarra da, baina lan kontuengatik Bergara etorri eta han bizi da orain. "Maistra ikasketak egin nituen, eta irakasle lanak egitera etorri nintzen Bergarako helduen eskolara. Guztira, 11 urte egin nituen irakasle moduan, hasieran haur hezkuntzan, ondoren 16 urteko neska-mutikoekin, eta bukaeren helduen eskolakoekin", dio Virginia Imazek.

Dena den, irakasle lana egiten zuen bitartean, antzerki munduan zebilen; alegia, aldi berean egiten zituen biak "Irakasle lanak soldata finkoa ematen dizu, baina antzerkiak ez. Dena den, behin betiko aukeraketa egiteko garaia heldu zitzaidan, eta 1994. urtean sudur gorriaren alde egin nuen".

Ondoren, 1996. urtean Oihulari Klown taldeak profesional mailarako saltoa eman zuen. "Taldea 1984. urtean sortu zen; baina, profesionalki dihardugu azken 12 urteotan. Egun sei lagun gaude taldean, eta aldiaka beste bost kolaboratzaile izaten ditugu", dio Virginia Imazek.

IRAKURLE AMORRATUA

Asteko egunak agendarekin antolatzen dituzte Oihulari Klown taldekoek. "Lan gehien egunetik domekara arte izaten dugu; aldiz, egunki lasaienak astelehenak eta martzenak izaten dira. Ordutegiari dagokionez, gure emanaldiak 18:00etatik aurrera egiten ditugu. Hortaz, gehienak lanetik irteten direnean hasten gara gu lanean".

Kilometro asko egiten ditu Virginiam antzerki taldearekin. "Jeneralean, Euskal Herrian zehar ibiltzen gara; baina, tarte-ka urrutirago joaten gara". Bidaiak aprobatxatzentzu ditu irakurtzeko: "Irakurle amorratua naiz, eta nire eskuetara heltzen den guztia irakurtzen dut".

Atseden egunetan sudur gorria alde batera uztea asko kostatzen zaio Virginia Imazi: "Lan-

bidea asko maite duzunean zaila da ordu batzuetan alde batera uztea; baina, egin beharra dago. Nik, atseden egunetan familiarekin, lagunekin, eta batez ere, semearekin eta senarrarekin ditudan hartu-emana sendotzen ahalegintzen naiz". Ordu libreak dituenean antzerkia ikustera edo paseatzera joaten da. Bestalde, familiarekin afariak egiten dituela esan digu.

Musika zalea ere bada: "Inprobisazioarekin hartu-emana due-lako jazz musika asko gustatzen zait. Baina, euskal musika, bluesa eta kantautoreen musika asko entzuten dut".

LANA NON, OPORRAK HAN

Oporrak antolatzeko orduan semearen eskola orduak eta Oihulari Klown taldearen agenda harten ditu kontuan. "Kanariar Irletako Maspalomas Unibertsitatean ikastaroa eman genuenean, astebeteko oporrak hartu nituen semearekin eta senarrarekin. Donostiara lanera joaten naizean ere egun batzuk pasatzen ditugu bertan. Halaxe moldatzentzu gara oporrak hartzeko orduan", esan digu.

"1000 emanaldi baino gehiago egin ditugu 'Modelo kloontrapublicitaria' lanarekin"

Oihulari Klown taldearen lehen ikuskizuna izan zen, eta duela 20 urte estreinatu zuten. Ordutik 1.000 emanaldi baino gehiago egin dituzte. "Oraindik ere eskatzen digute *Modelo kloontrapublicitaria* antzezlana. Egun 12 ikuskizun ditugu eskuartean. Nik, lautan hartzentzu partea pailazo moduan". Gai ezberdinie buruz hausnartzen dute ikuskizunetan, besteak beste, kontsumoa, osasuna eta globalizazioa. Taldearen ikuskizun berriena *Enkantatuak* izeneko lana da, eta euskarazko bertsioa. Arrasaten estreinatuko dute hilaren 21ean. Antzerkiarekin batera haurrendako eta helduendako ipuin kontaketa, eta *Kloonklusioak* izeneko emanaldiak egiten dituzte. "Kongresuera gonbidatzen gaituzte, eta hizlari guztien hitzak entzun ondoren, pailazo arropak jantzi eta oholtza gainean inprobisatu egiten dugu. Kongresuan bildutakoak harri eta zur geratzen dira".

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presa. Deitu ezazue telefono honetara: 659 64 67 38.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza salgai erdigunean. Mailandiko eraikina. Garaje itxi eta trastelekuarekin. 380.000 euro negoziagarri. Aukera ona. Deitu ezazue telefono honetara: 677 52 33 75.

Bergara. Martoko kalean 50 metro koadroko etxebizitza. Sukaldea, egongela, hiru logela eta bainua. Prezio interesgarria: 102.000 euro (17.000.000 pezeta). Deitu ezazue telefono honetara: 943 76 32 25.

Luz Saint-Sauveurren etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). Deitu ezazue telefono hauetara: 670 49 84 28 edo 649 03 52 95.

Oñati. 120 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Guztiz eraberritua. Trasteleku eta lursailarekin. Tasatutako prezioan. Deitu ezazue telefono honetara: 650 60 12 14.

Oñati. 65 metro koadroko apartamentu berrria salgai erdialdean. Garaje eta guzti. Deitu ezazue telefono honetara: 665 71 42 69.

102. EROSI

Bergara. Etxebizitza txikiak ero-siko nuke. Deitu ezazue telefono honetara: 680 35 96 30.

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Etxebizitza ematen da errentan. Amaia. Deitu ezazue telefono honetara: 649 07 97 56.

Aretxabaleta. Hiru logelako etxebizitza berrria ematen da errentan. Deitu ezazue telefono honetara: 695 72 79 55.

Arrasate. Etxebizitza errentan. Erguinen, eskolatik gertu. Ikerkale edo bikote batentzat. Laura/Jose Angel. Deitu ezazue telefono hauetara: 629 67 94 88 edo 615 74 32 79.

Arrasate. Pertsona bakarraren-tzako moduko estudioa ematen da errentan. Guztiz jantzia. 400

euro hileko. Deitu ezazue telefono honetara: 943 77 13 02.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan Eduardo Gorosarri plazan, ikastetxe edo familia baten-tzat. Deitu ezazue telefono hauetara: 605 77 51 65 edo 943 71 48 65.

Gasteiz. Hiru ikaslerendako etxe-bizitza errentan ematen da. Unibertsitatemik gertu. Deitu ezazue telefono honetara: 647 92 75 26.

Oñati. 90 metro koadroko etxe-bizitza berrria ematen da erren-tan erdigunean. Deitu ezazue telefono hauetara: 61573 29 83 edo 652 76 50 90.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote batek etxebizi-tza edo logela hartuko luke errentan. Ahal izanez gero erdialdean. Deitu ezazue telefono honetara: 666 21 88 95 edo 943 77 13 10.

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Deitu ezazue telefono hauetara: 608 49 89 93.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan herri erdialdean. Igogailuarekin eta altzaririk gabe. Deitu ezazue telefono honetara: 679 31 62 68.

Bergara. Neska batek etxebizi-tza hartuko luke errentan. Mar-ta. Deitu ezazue telefono honetara: 617 00 90 83.

Debagoina. Bilogela edo gehiagoko etxebizitza behar dut errentan. Presazko. Deitu ezazue telefono honetara: 630 31 84 34.

Debagoina. Eskoriatza, Arra-sate edo Aretxabaletan etxe txiki bat urte osorako errentan harta nuke. Deitu ezazue telefono honetara: 635 12 87 94.

Arrasate. Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. Deitu ezazue telefono honetara: 608 49 89 93.

Bergara. Bolun logela ematen da errentan, sukaldaroko auke-rarekin. Natalia. 670 85 86 68.

Bergara. Logela emango nuke errentan. 650 62 12 94.

Bergara. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 15:00ak eta 18:00ak bitartean. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Bi pertsona behar dira Eguzki dorrean etxebizitza osatzeko. Deitu ezazue telefono honetara: 620 52 94 98.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan. Deitu ezazue telefono honetara: 610 02 65 39.

Arrasate. Etxea osatzeko per-tsona bat behar dugu Arrasa-teko erdialdean, unibertsitatek 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala han-

106. GARAJEAK

101.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

ETXEAK OSATU

BESTELAKOAK

201.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

202.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

203.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

204.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

205.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

ETXEAK OSATU

BESTELAKOAK

201.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

202.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

203.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

204.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

205.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

401.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

501.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

601.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

701.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

801.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

901.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

ERRENTAN HARTU

BESTELAKOAK

1001.

SALDU

EROSI

ERRENTAN EMAN

astea GOITBn

Astelehena, 8



> Larraitz Zeberiok aurkeztuta, albistegia

19:45

Astelehentik egubakoitzera, Larraitz Zeberio kazetariak aurkeztuta, Debagoieneko berriak ikusteko aukera duzue Goiena Telebistan.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Muka muka.

13:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Erreportajea.

15:45 Tolosako Orfeoia.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Euskal Artzainak Ameriketan.

17:45 ILunpean.

18:15 Marrazkiak: Muka Muka.

18:45 Berriak.

19:15 Musikantoi

19:45 Berriak.

20:15 Marrazkiak: Muka Muka

20:45 Berriak.

21:15 Eltze beroa.

21:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

22:15 Erreportajea.

22:45 Berriak.

23:15 ILunpean.

23:45 Musikantoi.

00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 9



> Marrazki bividunekin zita Goiena Telebistan

13:20

Marrazki bividunekin zita Goiena Telebistan. 13:20ean hasita, marrazki bividunak GOITBn.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Futbola.

13:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Erreportajea.

15:45 Miarritzeko Balleta.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Euskal Artzainak Ameriketan.

17:45 ILunpean.

18:15 Marrazkiak: Futbola.

18:45 Berriak.

19:15 Musikantoi.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazkiak: Muka Muka

20:45 Berriak.

21:15 Eltze beroa.

21:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

22:15 Erreportajea.

22:45 Berriak.

23:15 ILunpean.

23:45 Musikantoi.

00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 10



> 'Zaharrak berri' saioa bueltan da oraingo astetik

20:15

Eguaztenean hasiko da oraingo ikasturteko Zaharrak berri saioa. Arantzazuko bedarrizurrena eta Oteiza eta Arantzazu izango dira hizpide.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Futbola.

13:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Erreportajea.

15:45 Gabirialko rally-sprinta.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Euskal Artzainak Ameriketan.

17:45 ILunpean.

18:15 Marrazkiak: Muka Muka.

18:45 Berriak.

19:15 Musikantoi.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazkiak: Muka Muka

20:45 Berriak.

21:15 Eltze beroa.

21:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

22:15 Erreportajea.

22:45 Berriak.

23:15 ILunpean.

23:45 Musikantoi.

00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 11



> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan

22:15

Musikazaleok, egunero duzue hitzordua Goiena Telebistan Musikantoi saioarekin. Asteotan ere musika eskaintza zabala izango duzue.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bividunak: Futbola.

13:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

14:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Erreportajea.

15:45 Gabirialko rally-sprinta.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Euskal Artzainak Ameriketan.

17:45 ILunpean.

18:15 Marrazkiak: Muka Muka.

18:45 Berriak.

19:15 Musikantoi.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazkiak: Muka Muka

20:45 Berriak.

21:15 Eltze beroa.

21:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

22:15 Erreportajea.

22:45 Berriak.

23:15 ILunpean.

23:45 Musikantoi.

00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 12



> 'Berriak' saioa egunero, Goiena Telebistan

14:45

Egunero eskainiko dute Goiena Telebistan albistegia 19:45ean. Egubakoitzean, baina, eguerdian izango da hori, 14:45ean, hain zuen ere.

12:10 Emisio hasiera.

12:20 Marrazki bividunak: Futbola.

12:45 Erreportajea.

13:15 Eltze beroa.

14:45 Berriak.

15:15 Erreportajea.

15:45 Dantza topaketa.

16:15 Eltze beroa.

16:45 Berriak.

17:15 Euskal Artzainak Ameriketan.

17:45 ILunpean.

18:15 Marrazkiak: Muka Muka.

18:45 Berriak.

19:15 Musikantoi.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazkiak: Muka Muka

20:45 Berriak.

21:15 Eltze beroa.

21:45 Euskal Artzainak Ameriketan.

22:15 Erreportajea.

22:45 Berriak.

23:15 ILunpean.

23:45 Musikantoi.

00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Aquariumera joateko azkeneko sarrerak Irratian
10:30

Donostiako Aquariuma ikustera joateko azkeneko aukera emango du oraingo hilean Arrasate Irratia. Eskaerak egindakoak ditza ezu; irratia@goiena.com helbidean zein, 943 25 05 05 telefonoan.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuikitik; hirugarren adineko gainekoak (dieta, tertulia...) Zaharrak berrisaioan, eta sexologia kontuak, bestea.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehentetegi egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Ilunpean Teknobierrak Igo Euriborrera! Kantaka Zaharrak Berri Astearen errepaso Zozketak 20:15 Marrazkiak Zorion agurrik (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com)) 11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratiko albistegia. 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak. 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Igor Siguero
Euskadi Irratiko Kazetaria

"Telebistan irudiaren babesaren sentitzen dut, irratiaren ez bezala"

MIREN ARREGI > BERGARA
Hondarribiarraketa erabat saltseroa da Jon Siguero kazetaria. Iruneko Localia telebistatik, Herri Irratira eman zuen saltoa eta azken urtean Euskadi Irratian dihardu lanean, hark dioen moduan

kuxkuxeroa



Goiatz Arana

Musika, jaiak eta oporretako istorioak

Musika izan da, zalantza barik, asteburu honetako protagonistekoa bat. Arrasateko Gure-Leku tabernaren eskualdatzea dela eta, inaugurazioa izan zuten egunean, eta **Gose** taldeak kontzertua eman zuen bariuan. Eta gau horretan berrian, izan zen Azkena Rock jaialdian **Sex Pistols** taldearen kontzertua ikusi eta han-dik Oñatira **Gatillazo** entzutera etorri zenik ere. Atzeko kaleko jaien barruan izan zen hori eta atzo **Margarita Iturmendi** zena omendu zuten: inguruan izan den errifa sal-

Leintz Gatzagako jaietan izan omen da zapatu goizean praka barik etxeratu denik ere

tzaile onenetarikoa, grazia handiko emakumea eta borrokaria ere bai.

Arantzazun bederatziurrenean murgilduta daude egunotan, eta zapatuaren ezkontza bat ere ospatu zen, zortzi metroko limusina eta guzti.

Leintz Gatzagako jaietan, izan omen da zapatu goizean praka barik etxeratu denik ere. Bertan bizi den Edortarekin berriketan ari nintzela, berriz, oporretan **Australian** izan dela kontaktu zidan: furgoneta hartu eta leku ezberdinak ezagutzen ibili dira egun batzutan, eta australiar batzuen etxearen egon dira gainerakoetan. Eta trukean, hango bizilagunak Leintz Gatzagako etxearen egon dira. Antza, Mundakako olatua dela-eta, Australiako surf zaleek gusztuko dute Euskal Herria.

**((112))
SOS DEIAK**



Margari Iturmendi 'Naparrenekua'-ri omenaldia. Oñatioko Atzoko kaleko jaien egitarauaren barruan, omenaldia egin zioten atzo arratsaldean Margari Iturmendi 'Naparrenekua'-ri. Herrian hain maitea zen Margari maiatzaren 14an hil zen, 95 urte zituela. Merezitako omenaldian jende asko batu zen. Oñatz dantza taldeak aurreskua dantzatu zuen, Oñatioko txistularien laguntzaz. Iruñetik etorritako Fermín Balenciac, ondoren, Nafarroako historiaren gaineko kantuak abestu zituen. Ruper Ordorikak eta The Txuletons taldeak ere emanalditxo egin zuten.



Hip Hop eta reggae jaia. Arrasateko 3.60 aretoan hip hop eta reggae doinuak izan ziren protagonista zapatu gauean. Esan beharra dago Azkena Rock jaialdiak eragina izan zuela 3.60 aretoan antolatutako jaian. Gerturatu ziren zaleak, baina, gustura egon ziren. Leyenda Urbana, Rojo Vivo reggae band eta Puto Punki taldeek egin zuten emanaldia.

asteburuko albuma



Sokatiran. Gazte Independentiek deitura sokatira saioa egin zuten zapatu eguerdian Arrasateko herriko plazan. Independentziaren aldeko ekintza izan zen. Jarraian, triki poteoa egin zuten.



Kale-antzerkia Bergaran. Musika tresnen fabrika izeneko kale-antzerkia izan zen zapatu arratsaldean Bergarako San Martin plazan. Umeei zuzendutako ikuskizunean musika tresnak zelakoak diren eta nola egiten diren azaldu zieten antzezlaneko bi aktoreek. Tresna horiek nola erabilten diren ere azaldu zuten era ludikoan beti bi protagonistek. Musikarekiko zaletasuna pizteko proposamena, zalantzak gabe!

ESKER ONA

Jose Ramon Badiola Arakistain

Bergaran hil zen 2008ko abuztuaren 30ean, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko irailaren 8an.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu,

deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritzat batera, eguztzen eguerdia baino lehen:
Arrasate Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 25 05 05 / **Goienetxe**: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara**: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati**: Biklo publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65. **Aretxabaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramalo**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Etxebarrieta**: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratur gero, **120 euro**.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).



Zorion agurrak



BERGARA
Jon Barragan
Abuztuaren 5ean, 11
urte egin zituen.
Zorionak eta laztan
handi bat etxeko
partetik.



DEBAGOIENA
**Aritz Elizondo
Aranburu**
Abuztuaren 9an, 3
urte. Zorionak eta
patxo bat.



ARETXABAleta
**Iratzi Mengyuan
Motrel Garai**
Abuztuaren 10ean.
Hiru urte betezi-
tuen. Zorionak mai-
tia familia osoaren
partez eta patxorik
gouxena!



ARRASATE
Mikel Elduaien Azula
Abuztuaren 22an.
Mutiko handi, dago-
eneko 5 urte egin
dituzu! Zorionak
zure senide guzti-
en partetik, bereziki
Nerearen partez.



OÑATI
Ander Urtaza Ronda
Abuztuaren 24an,
urtebetetze.
Zorionak eta patxo
handi bat etxeko
partetik.



ARRASATE
Aratz Ormaetxea
Irailearen 1ean urte-
bete. Zorionak
etxeko partetik.



ANTZUOLA
**Julen Gezalaga
Esnaola**
Irailearen 2an, 2
urte. Zorionak zure
2 urbetetzean!
Bihotzez etxeko
guztien partetik.
MILAKA MUXU.



ARETXABAleta
**Haritz Garai eta Allultz
Lazcano**
Zorionak haundi bat
eta patxo potolo bana
Iratiren partetik.
MILAKA MUXU.



DEBAGOIENA
Arane Zubia
Abuztuaren 24an 9
urte bete ditu.
Zorionak potxola
aita, ama eta
Anderren partetik.
Oporrak bukatu dira
eta ea noiz egiten
duzu merendola!



BERGARA
**Unax eta Oier
Etxaniz**
Unaxeak irailaren
3an 4 urte eginen
ditu eta Oierrek
Abuztuaren 24an
urtebetetze egin zuen.
Zorionak etxeko
guztien partetik!



BERGARA
Maren Unamuno
Irailearen 3an, 4
urte. Zorionak etxe-
ko guztien partetik,
bereziki Naia. Patxo
handi bat.



OÑATI
**Itziar Landeira
Consuelo Azkargorta**
Irailearen 5ean.
Zorionak, amama!
Primeran pasau
zure urtebetetze
egunian!! Ta
animo!!
Kuadrillakoan par-
tetik!



ARRASATE
Imanol Pagoaga
Irailearen 5ean.
Zorionak eta patxo
handi bat etxeko
aldetik!!!



OÑATI
Telmo Oleaga Errasti
Irailearen 6an.
Zorionak danon
partez!!



ARRASATE
**Ander Arrizabalaga
Guridi**
Irailearen 8an. Bere
familiaaren partetik.
Zorionak!



BERGARA
**Leire Agirre
Iturriastillo**
Irailearen 8an, 11
urte. Zorionak eta
patxo handi bat
familiaokoen par-
tetik.



BERGARA
**Enaitz Rueda
Cabanillas**
Zorionak
Enaitz!!Urtetxo
bat!!Ondo pasa
zure lehenengo
urtebetetzean!mus
u handi bat familia-
ren partetik.



ARETXABAleta
Oier Zumarraga
Irailearen 7an gure
piratak 6 urte!
Orain bezain jator
jarratu eta musu
handi bat Enara,
Eñaut, aitatzko eta
amatxoen partetik.



ARRASATE
Arantxa Isasmendi
Irailearen 8an.
Etxeko partez
Zorionak eta urte
askotaroko amama!
Ondo pasau egune.



ARRASATE
Aner Iriarte Balerdi
Irailearen 9an, 5
urte. Zorionak fami-
lia guztien eta
bereziki Malen,
Naroa eta Junen
partez.



ARRASATE
Jose Ramon Balerdi
Irailearen 9an.
Zorionak Aitaita!!
Aner, Malen, Naroa
eta Junen partez.

BERGARA
Ana Galfarsoro
Irailearen 10ean.
Zorionak guapisima!
Urte askotaroko
asko maite zai-
tuen Osintxuko
familian partez:
Arra, Diego, Lur,
Kalista ta Mitxela.
Musu handi-handi
bat!



ARRASATE
Andoni Uribe Salgo
Irailearen 10ean.
Ederto pasau zure
eguna eta zorionak
familiaokoen par-
tetik!



ARETXABAleta
Danel Lanzos
Irailearen 13an, 2
urte. Zorionak pira-
ta, eta patxo handi
bat etxeko guztien
partetik.



BERGARA
**Ziortza Ibarriaga
Bengoa**
Irailearen 7an, 6
urte. Zorionak etxe-
koen partetik.



URKO BITERI LOPEZ
Arrasate > 1,170 kilo. Irailearen 2an.
Gurasoak: Silvia (Bartzelona) eta
Gotzon (Arrasate). Argazkian, Urko
jaioberria, sehaskan lo.



Irati Mihaela Arbulo Rosocha
Antzuola > 2,750 kilo. Abuztuaren
22an. Gurasoak: Ileana eta Andres.
Argazkian, Irati jaioberria, guraso-
ekin eta anaia Dean-ekin.



Iraia Larrea Martin
Antzuola > 4,060 kilo. Irailearen
2an. Gurasoak: Silvia (Antzuola)
eta Josu (Antzuola).



Marta Abarrategi
Aretxabaleta > 3,980 kilo. Irailearen 3an.
Gurasoak: Marijo (Aretxabaleta) eta
Gorka (Aretxabaleta). Argazkian, Marta
jaioberria, sehaskan lo.



Izadi Elortondo Moraza
Arrasate > 3,080 kilo. Irailearen 8an.
Gurasoak: Zorione (Arrasate) eta
Aitor (Arrasate). Argazkian, Izadi
jaioberria, sehaskan lo.



Aiora Maure Azkarate
Bergara > 4,080 kilo. Irailearen 4an.
Gurasoak: Nora (Bergara) eta Asier
(Bergara). Argazkian, Aiora jaiobe-
ria, sehaskan lo.



**IKUSI
MAKUSI**
Umeen
paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Mohammad Afzal Chohan > Igeltseroa

"Pakistanen nagoenean Oñati izaten dut buruan"

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Chohan oso ezaguna da Oñatin, batez ere hona bizitzera etorri zenean ia atzerritarrik ez zegoelako. Horrez gain, Arrasaten ere lagun asko ditu, eta baita kebab jatetxea ere. Gustura bizi da Chohan euskaldunen artean.

Noiz eta zelan etorri zinen Pakistandik?

1974an, 17 urte nituela, mundua ezagutzea erabaki nuen eta Parisen eta Bartzelonan egon ostean, Oñatira etorri nintzen bertan lagun batzuk nituelako. Sasoi hartan ia ez zegoen atzerritarrik inguruan. Pentsa, Franco ere bizi zen!

Zer aurkitu zenuen hemen?

Pakistanekin alderatuta guztia zen desberdina, batez ere eguraldia: hemen beti lainotuta, hotza.... Bestalde, ni Pakistango herri bateko naizenez, Oñatin hobeto egokitu nintzen Bartzelonan baino.

Sasoi hartan, 70eko hamarkadan, asko kostatu zitzazun lana aurkitzea?

Ez. Teileria baten lanean hasi nintzen, baina utzi behar izan nuen adin txikikoa nintzelako. Horren ostean, 18 urterekin, eraikuntzan lanean hasi nintzen. Eta hala jarraitu dut.

Zer da Oñatitik gehien gustatzten zaizuna?

Pakistanen ostean, Oñati da nire etxea. Are gehiago, gurago dut Oñati, Pakistanen bero larregi egiten duelako. Oñatitik gehien gustatzen zaidana jendea da. Koadrila daukat hemen, eta nik edatan ez dudan arren, urte askoan

TEST-A

Herria: Oñati. **Adina:** 51 urte. **Ikasketak:** Oinarritzko ikasketak. **Zale-tasunak:** Mendira joatea. Aizkorriin eta Urbian sarritan egon naiz, eta inoiz Pirinioetan ere bai. **Zure seme-alabek oñatiartzat edopakistardartzat daukate euren burua?**

Haien oñatiarra izanda, zelatan jarri duzu Kebab jatetxea Arrasaten? (Barre) Oñati txikiagoa da, eta gainera hemen txuleak gurago dituzte, baina nik oso gustura jarriko nuke jatetxea hemen. Nire negozioa daukat eta ez daukat ugazabarik. Gainera, lagun mordoa ditut eta pozik nago orain arte egin dudanarekin.

txikiteoan ibili naiz hemengo lagunekin, baita Lokotzak taldean futbolean jokatzen ere.

Zer esango zenioke euskara ikastea zaila dela diotenei?

Nik ez dut ondo berba egiten, baina ia guztia ulertzen dut. Zaila da, baina ekinez gero, ikasi dai-teke. Ni ez naiz inongo eskolara hizkuntzak ikastera joan, baina euskara eta gaztelera ondo uler-tzen ditut. Oñatiko jende askorekin harremana daukadanez, kalean ikasi dut. Gainera, koadrila koek euskaraz egitera animatzen naute.

Asko oroitzen zara Pakistanez, zure jaioterriaz?

Urtero joaten naiz familia bisitatzen eta astero deitzen diet telefoonoz. Bainan han nagoenean Oñati daukat buruan.

Hain oñatiarra izanda, zelatan jarri duzu Kebab jatetxea Arrasaten?

(Barre) Oñati txikiagoa da, eta gainera hemen txuleak gurago dituzte, baina nik oso gustura jarriko nuke jatetxea hemen.



EKINTZALEA Igeltsero lanaz gain, kebab jatetxea duka Chohanek. IKER BARANDIARAN

ai, ene!



Txokolatezko iPod-a

Modelo eta kolore guztietako iPod-ak kaleratu ditu Apple etxeak: diamante eta harri bitxizkoia, urrezkoia, Swarovski kristalezkoia... Bainan, oraingoak, txokolatezkoak, harridura eragin du guztien artean. Jateko ere izango al da?

<http://www.fotosdehumor.com>

biharamuna

Oier Bolibar

Glokalizazioa

Glokalizazioa, globalki pentsatu eta lokalki eragin. Honela definitzen dugu glokalizazio kontzeptua, orokorra eta bertakoaren harreman mota berria. Agian irailean gara guztioi glokalagoak, harat eta honat ibili ostean, mugaz haratago dagoena bizi, eta mugaz hona dagoena baloratzen ikasten baitugu. Gero eta homogeneoagoa den mundu honetan etxekoaren onurak balio erantsia du.


Globalizazioaz erraz hitzegiten dugu gaur egun, beti ere ikuspegi ekonomikoari so eginez, baina arlo guztietan globalizatu gara ditugun baliabideak aintzat hartuta; informazioa, mugitzeko erraztasun

na... munduarekiko distantziak txikitu zaizkigu ororar. Atzo Costa Rican geunden, gaur Korean eta bihar Panaman. Hemendik hangoa dakusagu eta handik hemengoa, gertu, baina era berean urrutia.

Gero eta glokalagoa behar luke munduak, halabeharrez globalagoa, baina lekuko ikuspegiarekin.

Tokiko garapena ikuspegi integratzialeago batetik ulertu nahi nuke, mundu globalean norberarenena dena defendatzeko ahalmena. Globalizazio garaian, tokiko mailak beharrezko oreka estatikoa behar dio eman fluxu kaotiko globalari.

eguraldia



MAXIMOA

+28

MINIMOA

+18

Giro egonkorra eta ostarteak izango dira. Eguraldi politarekin emango diogu hasiera astelehenari. Temperaturak gora.

www.euskalmet.net

i K E R

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

